

EUSKADI BASQUE COUNTRY



E

EUSKADI BASQUE COUNTRY ESTRATEGIA

JARDUEREN JARRAIPENA

2019 URTEA

2020ko uztailak 30

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	2
1 SARRERA.....	5
2 JARDUEREN AZTERKETA NAZIOARTEKO BEKTOREEN ARABERA	9
2.1 1. bektorea: “Euskadi Basque Country marka atzerrian proiektatzea”	12
2.2 2. bektorea: “Interes sektorialak bultzatu eta sustatzea”	15
2.3 3. bektorea: “Garapen iraunkorreko erronka globalei erantzuten laguntzea”	18
2.4 4. bektorea: “Europaren proiektuari laguntzea”	21
2.5 5. bektorea: “Ezagutza biltzea”	24
3 JARDUEREN ANALISIA ARLOKAKO EREMUEEN ARABERA	27
3.1 Kanpo Harremanak	27
3.2 Enpresen Nazioartekotzea	29
3.3 Kultura.....	30
3.4 Turismoa	31
3.5 Garapenerako Lakidetza	32
3.6 Kirola	33
3.7 Gobernu Irekia	33
3.8 Bizikidetza eta Giza Eskubideak	34
3.9 Berdintasuna.....	35
3.10 Zientzia, teknologia eta berrikuntza	36
3.11 Nekazaritza, arrantza eta elikadura	36
3.12 Azpiegiturak eta Garraioak	37
3.13 Enplegua	38
3.14 Gizarte Politikak	39
3.15 Ingurumena.....	39
3.16 Lurralde politika	40
3.17 Etxebizitza	41
3.18 Ogasuna eta Ekonomia	42
3.19 Hezkuntza	43
3.20 Lanbide Heziketa.....	44

3.21	Unibertsitateak eta Ikerkuntza	45
3.22	<i>Osasuna</i>	46
3.23	Hizkuntza Politika.....	47
3.24	Segurtasuna	47
3.25	Justizia.....	48
3.26	Lana.....	49
3.27	Zibersegurtasuna	50
4	EREMU GEOGRAFIKOAREN ARABERAKO ANALISIA	51
4.1	Lehentasunezko Herrialdetako jarduera.....	54
4.2	Lehentasunezko eskualdetako jarduerak	57
5	JARDUEREN MONITORIZAZIOA	59
6	JARDUEREN ERAGINA	61
7	ONDORIO NAGUSIAK	62

TAULEN AURKIBIDEA

1. Taula. Jarduera eremu geografikoak	6
2. Taula. Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren nazioartekotze jardueren monitorizazio sistema	7
3. Taula. 2020ko EBCren adierazleen taula	8
4. Taula. EBCren Monitorizazio Sisteman zehaztutako tipologia bakoitzaren barruan jarduera nagusi eta lagungarri edo bigarren mailakoen deskripzioa	9
5. Taula. Nazioartekotze jarduera kopurua, bektorearen eta jarduera eremu tematikoen arabera	11
6. Taula. Nazioarteko jardueraren monitorizazio sistema, egindako jarduerak “nagusietan” eta “lagungarri edo bigarren mailakoetan” zatitzen dituenak	59
7. Taula. Nazioartekotze jardueren betetze-ehunekoa, 2020ko EBCn ezarritako jomugetan oinarrituta	60
8. Taula. 2018 eta 2019 urtetarako 2020ko EBCren adierazleen taula	61

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. irudia. Jarduera nagusien proportzioa nazioartekotze bektorearen arabera	10
2. irudia. Jardueren proportzioa B1. Euskadi Basque Country marka atzerrian proiektatzea bektorearen barruan, jarduera eremu tematikoen arabera	14
3. irudia. Jardueren proportzioa B2. Interes sektorialak sustatu eta bultzatzea bektorearen barruan, jarduera eremu tematikoen arabera	18
4. irudia. Jardueren proportzioa B3. Garapen iraunkorrerako erronka globalei erantzuten laguntzea bektorearen barruan, jarduera eremu tematikoen arabera	20
5. irudia. Jardueren proportzioa B4. Europaren proiektuari laguntzea bektorearen barruan, jarduera eremu tematikoen arabera	24
6. irudia. Jardueren proportzioa B5. Ezagutza biltzea bektorearen barruan, jarduera eremu tematikoen arabera	26
7. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Kanpo Harremanen eremuan	27
8. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Enpresak Nazioartekotzea eremuan	29
9. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Kulturaren eremuan	30
10. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Turismoaren eremuan	31
11. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Garapenerako Lankidetzaren eremuan	32
12. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Kirolaren eremuan	33
13. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Gobernu Irekiaren eremuan	34
14. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideak eremuan	34
15. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Berdintasunaren eremuan	35
16. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren eremuan	36
17. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Nekazaritza, Arrantza eta Elikaduraren eremuan	37
18. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Azpiegiturak eta Garraioen eremuan	37
19. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Enpleguaren eremuan	38
20. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Gizarte Politikaren eremuan	39
21. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Ingurumenaren eremuan	40
22. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Lurralde Politikaren eremuan	41
23. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Etxebizitzaren eremuan	42
24. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Ogasuna eta Ekonomiaren eremuan	42
25. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Hezkuntzaren eremuan	43
26. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Lanbide Heziketaren eremuan	44
27. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Unibertsitateak eta Ikerkuntzaren eremuan	45
28. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Kanpo Harremanen eremuan	46
29. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Hizkuntza Politikaren eremuan	47
30. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Segurtasunaren eremuan	48
31. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Justiziaren eremuan	48
32. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Lanaren eremuan	49
33. irudia. 2019an egindako nazioartekotze jardueren ehunekoa, kontinenteen arabera	51
34. irudia. 2019an egindako nazioartekotze jardueren ehunekoa, herrialdeen arabera	52
35. irudia. 2019an egindako nazioartekotze jardueren ehunekoa, lehentasunezko eskualdeen arabera	53

1 SARRERA

2020rako Nazioartekotzeko Esparru Estrategia: Euskadi Basque Country Estrategia, aurrerantzean EBC, 2014az gero Euskadi nazioartekotzeko politika bere esparru tematiko guztietan gidatzen duen tresna da, eta bere helburua da «**Euskadi eragile global moduan kokatzea, Europaren proiektua eraikitzen espazio berekia duela, Herrialde kohesionatua, erakargarria eta lehiakorra, bere bikaintasunagatik, giza garapen iraunkorraren maila handiagatik aitortua, solidarioa, munduari irekia eta kanpoko euskal gizataldearekin estu konektatua**».

Ikuspen hori, 2017an berraztertu eta eguneratua, nazioartekotze helburu estrategikoen multzo baten bidez gauzatzen da, eta helburu horiek, aldi berean, Eusko Jaurlaritzaren nazioartekotze jarduera ardazten duten **nazioartekotzeko bost bektore komunetan** jasota daude:

- V1. Euskadi Basque Country marka atzerrian proiektatzea
- V2. Interes sektorialak sustatu eta bultzatzea
- V3. Garapen iraunkorrerako erronka globalei erantzuten laguntzea
- V4. Europaren proiektuari laguntzea
- V5. Ezagutza biltzea

EBC-ren eguneratze horrek aurreikusten zuen 2018tik aurrera bost bektore horiek Eusko Jaurlaritzaren eta haren sektore publikoaren nazioartekotze-jarduerarako lehentasunezko esparru batzuetan hedatzea. Eredu horiek modu bateratuan laguntzen dute, beren jardura-sektorean eta beren gaitasunen, aktiboen eta baliabideen arabera, Euskadi nazioartekotzen, aipatutako bost bektoreak hedatuz. Txosten honetan 29 eremu aztertuko dira guztira. Gogoratu behar da lehen Esparru Estrategia, 2014-2017 EBC Estrategia, 19 eremutan oinarrituta zegoela, eta horiek eguneratu egin zirela 2017an 27 eremura iritsi arte. Era berean, 2018an eta 2019an, analisiak beste eremu bat gehitu du urtero: "Lana" 2018an eta "Zibersegurtasuna" 2019an. Gaur egun, honako eremu hauek osatzen dute estrategia:

1. Kanpo Harremanak
2. Enpresak Nazioartekotzea
3. Kultura
4. Turismoa
5. Garapenerako Lankidetzak
6. Kirola
7. Gobernu Irekia
8. Bizikidetzak eta Giza Eskubideak
9. Berdintasuna
10. Gobernantza Publikoa
11. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza
12. Energia
13. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura
14. Azpiegitura eta Garraioak
15. Enplegua
16. Gizarte Politikak
17. Ingurumena

18. Lurralde Politika
19. Etxebizitza
20. Ogasuna eta Ekonomia
21. Hezkuntza
22. Lanbide Heziketa
23. Unibertsitateak eta Ikerketa
24. Osasuna
25. Hizkuntza Politika
26. Segurtasuna
27. Justizia
28. Lana
29. Zibersegurtasuna

EBCK eremu tematiko horien nazioarteko hedapena orientatzen du Euskadiren kanpo proiektzioarako estrategikotzat jotzen diren jarduera **eremu geografiko** batzuetara. Atzerriko euskal interesen funtsezko parte bat biltzen duen lurralde zerranda bat da, eta Eusko Jaurlaritzak kanpoan hasten dituen ekinbide gehienek xede izan beharko luketen lurraldeak dira. Lehenetsun ariketa honek ez du esan nahi beste geografia batzuetan sortzen diren edo behar sektorialeiei erantzuten dieten aukerei muzin egin behar zaienik. Hortaz, 1. taulan Eusko Jaurlaritzarako eta bere nazioarteko jarduera eta garapenerako lehenesten diren eremu geografikoak, eskualdeak eta herrialdeak aurkezten dira.

1. Taula. Jarduera eremu geografikoak

JARDUTEKO GEOGRAFIA EREMUAK	LEHENTASUNEZKO HERRIALDEAK	LEHENTASUNEZKO ESKUALDEAK
EUROPA	<ul style="list-style-type: none"> • Alemania • Danimarka • Finlandia • Frantzia • Erresuma • Suedia 	<ul style="list-style-type: none"> • Akitania-Iparalde • Bavaria • Escozia • Flandria • Gales
AMERIKA	<ul style="list-style-type: none"> • Argentina • Kanada • Txile • Kolombia • Ameriketako Estatu Batuak • Guatemala • Mexico • Perú 	<ul style="list-style-type: none"> • Cundinamarca • Quebec • Querétaro • Minnesota • Terranova eta Labrador
ASIA	<ul style="list-style-type: none"> • Txina • Japonia • India 	<ul style="list-style-type: none"> • Jiangsu
AFRIKA	<ul style="list-style-type: none"> • Hegoafrika 	<ul style="list-style-type: none"> • KwaZulu-Natal

Iturria: 2020rako Nazioartekotzeko Esparru Estrategia: Euskadi Basque Country Estrategia

Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren nazioarteko jardueran eragile asko daudenez inplikaturik, EBCK jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema bat ezartzen du. Bere eginkizuna alde batetik, estrategian ezarritako 29 eremuetan burututako nazioartekotze jarduerak batera monitorizatzea da, eta, bestetik, esperientzia zabalagoa duten eta Estrategia bera martxan jartzeko protagonismo handiagoa hartu beharko duten eremuen lanaren eragina neurtzea: Kanpo Harremanak, Enpresen Nazioartekotzea, Kultura, Turismoa, Garapenerako Lankidetzak eta Kirola.

EBC praktikaratzearen jarraipenari dagokionez, 2018az gero **Monitorizazio Sistema** berri bat ezarri da, burututako jarduerak sei tipologia desberdinetan sailkatzeko, 2. taulan azaltzen diren bezala.

2. Taula. Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren nazioartekotze jardueren monitorizazio sistema

EKINTZA TIPOLOGIA	DESKRIPZIOA
NAZIOARTEKO PROIEKTU ETA SAREETAN LANKIDE ETA PARTAIDE IZATEA	Alde biko edo alde anitzeko nazioarteko proiektuen barruan Euskadiren protagonismoari eragiten dioten ekintzak edo nazioarteko sareen barruko ekintzak
PARTAIDETZA AKTIBOA NAZIOARTEKO EKITALDI, ARGITALPEN ETA EZTABAIDAGUNEETAN	Ekitaldi, argitalpen edo eztabaidaguneetan nazioarteko garrantzia duten plataformetan Euskadik protagonismoz (antolaketa, standa edo hitzaldiak) parte hartzea
EKITALDIETARA/KONFERENTZIETARA PROSPEKZIOZ BERTARATzea ETA/EDO ALDE ANITZEKO BILERETAN PARTE HARTzea	Ekitaldi, bilera eta eztabaidaguneetan prospekziozko ikuspegiarekin eta rol protagonistarik gabe parte hartzea
ATZERRIRAKO BIDAIK ANTOLATzea	Euskadiren atzerrirako proiektzioan eragiten duten nazioarteko misio, ordezkari eta bidaiak antolatzea
EUSKADIN DAUDEN ATZERRIKO ORDEZKARITZEN TOPAKETAK ETA/EDO HARRERAK	Euskadi bisitatzeko duten nazioarteko ordezkari abegi, harrera eta arretea egitea
FINANTZAKETA ETA DIRU-LAGUNTZA PROGRAMEN BULTZADA NAZIOARTEKOTZEAREN ESPARRUAN	Euskadiko nazioartekotze ekosistemako eragileentzako finantzaketa eta diru-laguntza programak martxan jartzea

Iturria: 2020rako Nazioartekotzeko Esparru Estrategia: Euskadi Basque Country Estrategia

Bestalde, eta Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren nazioartekotze jardueraren eragina neurtzeari dagokionez, 2017ko EBC eguneratuak Estrategiaren pisuaren zati handi bat eusten duten **eremuen eragina neurtzeko adierazle multzo bat proposatzen zuen Aginte Taula** baten bidez: Kanpo harremanak, enpresak nazioartekotzea, kultura, turismoa, garapenerako lankidetzak eta kirola. 3. taulan adierazle horiek zerrendatzen dira, “Euskadi nazioartekotzearen erradiografia”-tik datozenak, 2020 arteko eboluzio serieak ezartzeko.

3. Taula. 2020ko EBCren adierazleen taula

EREMU TEMATIKOA	ADIERAZLEA	NEURRI UNITATEA	ITURRIA
KANPO HARREMANAK	▪ Eusko Jaurlaritzak izenpetutako nazioarteko akordioak	Kopurua	Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia
	▪ Nazioarteko sareak Eusko Jaurlaritzaren partaidetzarekin	Kop.	Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia
ENPRESAK NAZIOARTEKOTZEA	▪ Ondasunak esportatzeko EAEren joera	%	Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila
	▪ Enpresa esportatzaile erregularrak > (1K€)	Kop.	Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila
KULTURA	▪ Euskarako eta euskal kulturako katedrak eta irakurle postuak munduan	Kop.	Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
	▪ Nazioarteko zenbat kultura ekitalditan hartzen den parte (lanbideko azokak)	Kop.	Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
TURISMOA	▪ Turismo gastua guztira (Turismo hartzailea) BPG-arekiko	%	Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila
	▪ Euskadira heltzen diren turistak	Kop.	Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila
GARAPENERAKO LANKIDETZA	▪ Garapenerako lankidetzarako laguntza/erabilitako aurrekontua	%	Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia
KIROLA	▪ Olinpiadetan parte hartzen duten euskal kirolariak	Kop.	Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Iturria: 2020rako Nazioartekotzeko Esparru Estrategia: Euskadi Basque Country Estrategia

EBC bektoretan, eremu tematikoetan eta eremu geografikoetan egituratzen dela kontuan hartuta, bere jarraipen eta ebaluazio sistemaz gain, **2019. urtean Eusko Jaurlaritzak eta bere sektore publikoak garatutako nazioartekotze jardueren analisi kuantitatibo eta kualitatibo** bat egiten da txosten honetan.

2 JARDUEREN AZTERKETA NAZIOARTEKO BEKTOREEN ARABERA

Atal honetan **Eusko Jaurlaritzaren sailek eta horietako erakundeek 2018 urtean egindako jarduerari** egin zaien jarraipena aurkezten da, eta EBCn zehaztutako nazioartekotzeko bost bektore komunekin lerrokatuta dauden balioztatzen.

2019an Eusko Jaurlaritzak eta bere sektore publikoak bultzatutako 1.403 nazioartekotze jarduera egin ziren, baina monitorizazio sistemaren barruan “**jarduera nagusi**” moduan **guztira 879** zenbatu dira.

Nagusizat zenbatutako jarduera horiek lotura argia eta zuzena dute **EBC Monitorizatzeko Sistemaren** barruan ezarritako sei tipologiekin, eta jardueraren muina irudikatzen dute. Gainerako jarduerak “**jarduera lagungarri edo bigarren mailako jarduera**” bezala katalogatu dira, monitorizazio sisteman zehaztutako tipologiarekin erlazionatuta baldin badaude ere, ez dutelako jarduera nagusien garrantzia, edo jarduera nagusi horien jarduera prospektibo edo lagungarriak direlako.

4. Taula. EBCren Monitorizazio Sistemaren zehaztutako tipologia bakoitzaren barruan jarduera nagusi eta lagungarri edo bigarren mailakoen deskripzioa


Tipologia	Azpipologia	Deskribapena
1. NAZIOARTEKO PROIEKTU ETA SAREETAN LANKIDE ETA PARTAIDE IZATEA	JARDUERA NAGUSIA	Bultzada eta benetako partaidetza, Euskadiren protagonismoarekin, nazioarteko proiektu eta sareetan.
	JARDUERA LAGUNGARRIA EDO BIGARREN MAILAKOA	Nazioarteko proiektu eta sareetan elkarlan puntuala egitea edo gonbidatu moduan parte hartzea, rol protagonistarik gabe, edo sare eta proiektuekin erlazionatutako ekitaldietan edo informazio saioetan partaidetza prospektiboa izatea.
2. PARTAIDETZA AKTIBOA NAZIOARTEKO EKITALDI, ARGITALPEN ETA EZTABAIDAGUNEETAN	JARDUERA NAGUSIA	Nazioarteko ekitaldi, ospakizun, eztabaidagune eta argitalpenak antolatzea edo horietan parte hartzea erakustokiarekin, hitzaldiarekin edo argitalpenarekin.
	JARDUERA LAGUNGARRIA EDO BIGARREN MAILAKOA	Ekitaldietan parte hartzeagatik bilerak eta lan saioak egitea, eta euskal presentzia duten baina Eusko Jaurlaritzak eta bere sektore publikoak antolatu ez dituen ekitaldietara joatea
3. EKITALDIETARA/KONFERENTZIETARA PROSPEKZIOZ BERTARATZEA ETA/EDO ALDE ANITZEKO BILERETAN PARTE HARTZEA	JARDUERA NAGUSIA	Etorkizunera begirako ikuspegiarekin ekitaldietara/konferentzietara joatea eta/edo alde anitzeko sareen bileretan parte hartzea.
	JARDUERA LAGUNGARRIA EDO BIGARREN MAILAKOA	Unean uneko alde biko bileretan, etorkizuneko ekintzak prestatzeko bileretan eta ekitaldi eta hitzaldiekin lotutako bileretan parte hartzea, bai eta prestakuntza-ikastaroetara joatea ere.
4. ATZERRIRAKO BIDAIK ANTOLATZEA	JARDUERA NAGUSIA	Atzerrirako ordezkariak eta misio zuzenak antolatzea.
	JARDUERA LAGUNGARRIA EDO BIGARREN MAILAKOA	BTlren kanpo sareak edo ordezkariak eta misio zuzenekin erlazionatutako Eusko Jaurlaritzaren kanpo ordezkariak izandako bilera puntualak.
5. ATZERRIKO ORDEZKARITZEN HARRERAK ETA/EDO BILERAK EUSKADIN	JARDUERA NAGUSIA	Euskadin atzerriko ordezkariak harrera egitea.
	JARDUERA LAGUNGARRIA EDO BIGARREN MAILAKOA	BTlren atzerriko sarean edo Eusko Jaurlaritzaren atzerriko ordezkarietan erakundeekin bilerak egitea.
6. FINANTZAKETA ETA DIRU-LAGUNTZA PROGRAMEN BULTZADA NAZIOARTEKOTZEAREN ESPARRUAN	JARDUERA NAGUSIA	Nazioartekotze ekosistemako eragileei begira finantzaketa eta diru-laguntza programak martxan jartzea.
	JARDUERA LAGUNGARRIA EDO BIGARREN MAILAKOA	Europako finantzaketa proiektuetarako hautagaitzak prestatzeko edo informatzeko ekintzak, eta SPRIren atzerri sareko euskal enpresen zerbitzu zorroarekin zerikusia duten jarduerak.

Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

Jarduera nagusiak izango dira, nazioartekotze arloko lanaren muina osatzen dutenez, kontuan hartuko direnak bektoreen arabera azterketa xeherako.

Ikuspegi horretatik, eta 879 jarduera hauek oinarritzat hartuz, **B2. Interes sektorialak sustatu eta bultzatzea** da bektore nagusia, 298 jarduera hartuz (%33,9). **B1. Euskadi Basque Country marka atzerrian proiektatzea** ere nabarmentzen da besteen gaitetik, 267 jarduera erregistratuekin (% 30,38). Horien hurrengo, **B4. Europaren proiektuari laguntzea** da 139 jarduerarekin (% 15,81), ondoren **B3 Garapen iraunkorrerako erronka globalei erantzuten laguntzea** 116 jarduerarekin (% 13,2), eta azkenik **B5. Ezagutza biltzea**, 59 jarduerarekin (% 6,71).

1. irudia. Jarduera nagusien proportzioa nazioartekotze bektorearen arabera



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

Eremu tematikoen arabera bektore analisi batean, **B1. Euskadi Basque Country marka atzerrian proiektatzea** bektorean bereziki bereizten dira Enpresen Nazioartekotzea (55); Kultura (39); Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura (25), Kanpo Harremanak (25); Ingurumena (17); Turismoa (17) eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza (14). **B2. Interes sektorialak sustatu eta bultzatzea** bektorean azpimarratzekoak dira Enpresen Nazioartekotzea (108), Kanpo Harremanak (90); Unibertsitateak eta Ikerkuntza (16); Kultura (15), Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura (12) eta Zibersegurtasuna (10). Beste alde batetik, **B3 Garapen iraunkorrerako erronka globalei erantzuten laguntzea bektorean** nagusi dira Kanpo Harremanak (25); Garapenerako Lankidetzak (24); Enpresen Nazioartekotzea (14); Berdintasuna (12) eta Osasuna (10). **B4. Europaren proiektuari laguntzea** bektoreari dagokionez gailentzen dira Kanpo Harremanak (67); Enpresen Nazioartekotzea (14);

Lanbide Heziketa (13) eta Osasuna (10). Azkenik, **B5. Ezagutza biltzea** sektorean nabarmentzen dira: Enpresen Nazioartekotzea (13); Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza (9), Lurralde Politika (8); Kanpo Harremanak (7) eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura (5).

5. Taula. Nazioartekotze jarduera kopurua, sektorearen eta jarduera eremu tematikoen arabera

Jarduera eremua / Bektorea	B1	B2	B3	B4	B5	Jarduera nagusiak guztira, eremuaren arabera
Kanpo Harremanak	25	90	25	67	7	214
Enpresak Nazioartekotzea	55	108	14	14	13	204
Kultura	39	15	0	1	0	55
Turismoa	17	1	1	0	0	19
Garapenerako Lankidetzak	0	2	24	1	1	28
Kirola	7	1	0	0	0	8
Gobernu irekia	0	0	1	0	0	1
Giza eskubideak eta Bizikidetzak	0	5	0	0	0	5
Berdintasuna	1	1	12	5	0	19
Gobernantza Publikoa	0	0	0	0	0	0
Zientzia, teknologia eta berrikuntza	14	5	0	0	9	28
Energia	0	0	0	0	0	0
Nekazaritza, arrantza eta elikadura	25	12	0	2	5	44
Azpiegiturak eta garraioak	2	1	1	5	0	9
Enplegua	1	4	0	2	0	7
Gizarte Politika	3	1	4	0	0	8
Ingurumena	17	0	1	4	2	24
Lurralde politika	2	1	5	1	8	17
Etxebizitza	2	1	0	0	1	4
Ogasuna eta Ekonomia	3	7	1	2	4	17
Hezkuntza	0	0	3	6	0	9
Lanbide Heziketa	12	1	7	13	0	33
Unibertsitateak eta Ikerkuntza	5	16	1	6	0	28
Osasuna	8	4	10	10	3	35
Politika Linguistikoa	2	0	0	0	0	2
Segurtasuna	7	8	0	0	4	19
Justizia	6	0	0	0	0	6

Lana	8	4	0	0	2	14
Zibersegurtasuna	6	10	6	0	0	22
Jarduera nagusiak guztira, bektorearen arabera	267	298	116	139	59	879

Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

2.1 1. bektorea: “Euskadi Basque Country marka atzerrian proiektatzea”

1. bektorea “Euskadi Basque Country marka atzerrian proiektatzea” Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektorearen nazioartekotze jardueran bigarren garrantzitsuena izan da 2019an, 267 jarduerarekin (guztien % 30,38).

“Euskadi Basque Country” marka da bektore hau artikulatzen duen bizkarrezurra, Eusko Jaurlaritzak eta haren eragile sozioekonomikoek partekatzen duten eta Euskadiren irudia kanpora proiektatzeko erabiltzen duten tresna. *Euskadi-Basque Country* tresna horretan oinarritzen da ezaugarri bereziak dituen herrialde lehiakorren irudiaren bultzatzea. Nazioarteko euskal eragileek partekatzen duten marka horrek mundu mailako edozein sustapen-jarduera babestuko duen aterkia da. Bereizgarri horrek erakunde-maila gainditu du, eta euskal gizartearen berezko balioak eta Euskadik kultura, enpresa eta gizarte mailan dituen aktibo nagusiak hedatzeko tresna bihurtu da, besteak beste. *Euskadi Basque Country* marka Euskadik kanpoan duen lehiakortasun-posizionamenduari laguntzen dio lurralde-marketineko mekanismo gisa.

Bektore honetan garatutako jardueren artean, 2019an *Euskadi Basque Country* kanpoan proiektatzen eta kokatzen lan egin da, **nazioarteko foroan eta sarean bidez**, bai eta euskal **erakunde eta eragile guztiek marka nazioartean erabiltzeko duten atxikimendua sendotzen ere**. Bektore honek marka-irudi bat finkatu nahi du, lurraldearen aurkezpen txartel bezala, honen berezitasunetan eta balio erantsian oinarritua, Euskadik inbertsioak, proiektuak, profesional kualifikatuak eta turistak erakartzeko duen gaitasunean eragiteko. Premisa hori abiapuntutzat hartuta, **nazioarteko azoka, hitzaldi eta ekitaldi entzutetsuetan parte hartzeko jarduera handia egin da**, hainbat gai-eremutatik. Horietan, EBC marka erakustoki, hitzaldi, espazio propio edo euskal eragileen parte-hartzearen bidez erakutsi zaio munduari.

Bektore honetan bereziki nabarmentzen da **Enpresak Nazioartekotzeko** esparrua. Izan ere, herrialdeko sektore estrategiko batzuekin, hala nola industria-sektorearekin, aliantzan, ekintza koordinatuak bultzatu dituelako herrialde markaren pean, hala nola Brnoko (Txekiar Errepublika) eta Hannover Messe-ko (Alemania) makina erreminta-azoketan euskal pabiloiak antolatzea, edo Parisko Air Show Azokan *Hegan* klusterrari laguntzea. Aipatzekoak dira, baita ere, BIND 4.0 azelerazio programaren aurkezpenak Europako hiriburu eta hiri desberdinetan Euskadira talentu berriak erakartzeko, edota Italiako “Oil & Gas” edo Txekiar Errepublikako trenbide sektoreko enpresen eta partzuergoen alderantzizko misioak jasotzea. Era berean, hainbat herrialdetako garapen-agentziekin eta inbertsio-funts publikoekin bilerak eginez, harreman-sare bat eratzen jarraitu da.

Kulturaren arloan, herrialde-markaren proiektzioa oso lotuta egon da **euskara eta euskal kultura atzerrian sustatzearekin**. **Ettxepare Institutuak**, munduan zehar euskal kulturaren dibulgazio eta hedapenaren estandarte gisa, ahalegin ugari egin ditu hainbat motatako jardueretan: Euskal artista eta idazleei jaialdi eta azoketan parte hartzeko diru laguntzak eta babesa eskaini dizkie; **ZABAL** ekimena jarri du abian, Euskal artearen testuinguruan, nazioarteko arte komisario/kritikoak Euskadira gonbidatuz; edo unibertsitateetako euskara-irakurletza berriak bultzatu eta zeudenak mantendu ditu. Aipatzekoa da *#ScotlandGoesBasque* proiektua, zeinekin 86 euskal artistaren 106 emanaldi sustatu zituen Eskozian. Halaber, hainbat euskal zine ziklo antolatu dira munduaren inguruan, hala nola Parisko *Different12!* Jaialdian, *Txileko Viña del Mar-eko zine jaialdian* edo *New York-eko Euskal Zinemaren asteen*, eta beste ekimen batzuetan ere parte hartu da, hala nola Bruselako Liburu eta Komiki Azokan.

Kanpo Harremanetatik, ekainaren 19an Bilbon ospatutako "**Euskadi Basque Country Eguna**"-ren lehen edizioa nabarmendu zen. "Abangoardia maite duen antzinako herri bat" izenburu pean antolatu zen ekitaldia, aukera ezin hobea izan zen Euskadi eta haren balioak munduan sustatzen dituzten mota guztietako eragileak biltzeko. Euskadi Basque Country markak eskaintzen dituen aukerak aztertzeko balio izan zuen, loturak gero eta trinkoagoak diren mundu-testuinguru batean, erronka berriak identifikatzeko eta etorkizun berriak irudikatze asmoz. Ekitaldia Iñigo Urkullu lehendakariak inauguratu zuen, eta hainbat pertsona ezagunek, nazioarteko proiektioa duten euskal artistek eta herrialde markako nazioarteko adituek parte hartu zuten. Ekitaldiak nazioarteko euskal gizartearen ordezkaritza zabala izan zuen, eta oihartzun handia izan zuen hedabideetan.

Era berean, irailaren 8an Ispasterren egin zen **Euskal Diasporaren Egunaren bigarren edizioa**, eta 100 ekitaldi baino gehiagoz egon zen babestua munduko 17 herrialdetan. Era berean, urriaren lehen asteen, **Euskal Gizataldeen Mundu Biltzarraren VII. edizioa** egin zen, Bilbon. Saregintzan lelopean, euskal presentzia duten 19 herrialdetako ordezkaritzak bildu ziren, eta zeinetik "**2020-2023 aldirako Ekintza Instituzionaleko Lau Urteko Plana**" sortu zen.

Gainera, beste jarduera batzuen artean, Euskadi Basque Country marka zabaltzen lagundu zen New Yorkeko World Trade Week erakustoki propio baten bidez, edo dibulgazio-jarduera desberdinen bidez, hala nola Emakundek Argentinan "Begiradak Eraldatzen" erakusketarekin. Aipatzekoa da azkenik esparru honen barnean Euskal Etxeek pixkanaka marka txertatzen ari direla beren jarduera publikoetan.

Nekazaritza, Arrantza eta elikaduraren jarduera eremuan, herrialde-marka euskal nekazaritza eta industria sareko eragile eta produktuei erreferentziatzeko azoketan lagunduz proiektatu zuen, hala nola *London Wine Fair*, *Bruselako Seafood Expo Global* edo *Facy Food Summer NY* azoketan, non huen sustapenari lagundu zitzaion showcookin-ak, B2B agendak, eta bestelako ekintzen bidez. Aipatzekoak dira, halaber, beste mota batzuetako sustapen-ekimen desberdinak, hala nola "Sukaldeko elkarriketak New Yorken eta Tokion" negozio-afariak, zuzeneko misio desberdinetan burutuak; Basque Culinary World Prize-ren bigarren edizioa; eta azkenik nazioarteko ordezkarien harrerak ere nabarmentzen dira ala nola Wagingengo Unibertsitatearena (Herbehereak) zeinetan gure nekazaritza-sektoreari berrikuntza laguntzeko ekosistema erakutsi zitzairen.


Turismoaren eremutik ere proiektatu ziren Euskadik mundu osoan dituen erakargarritasun eta berezitasunak, nazioarteko sektoreko erreferentziazko ekitaldietan eta azoketan parte hartzearen bidez, hala nola Latinoamerikako FIT- Turismo Azoka, Cannesko ILTM- International Luxury Travel Market Azoka, WTM – International Travel Trade Show (London) edo Jata – Japan Association of Tourism Agents Expo (Japan Association of Tourism Agents Expo) .

Ingurumenaren arloa ere aktiboa izan zen nazioartean EBC marka sustatzeari dagokionez. Garatutako jardueren artean, nabarmentzekoak dira COP 25ean parte hartzea, Euskadiko klima-ekintzak hainbat paneletan aurkeztuz, edo *International Conference on Climate Change* delakoan parte hartzea, biak nazioarteko erreferentziazko ekitaldi klimatikoak.

Egia da aurreko esparruetako jarduerak nagusi direla bektore honetan, baina beste eremu batzuetatik ere eragin handia izan zuten proiektzio-ekintzak egin ziren. Horien artean, nabarmentzekoak dira Euskadiko **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza** gaitasunak proiektatzea Txileko Maule edo Bio Bio eta Mexikoko Nuevo León bezalako eskualdetatik ordezkariak jasota; 2019ko Lanbide Heziketaren Nazioarteko Kongresua egitea Kursaalak, EBren edo LANEren ordezkarien presentziarekin **Lanbide Heziketaren** eremuan; Basque Health Clusterren parte-hartzea Eusko Jaurlaritzarekin batera Düsseldorfeko Azoka Medikoa, **Osasunaren** esparruan; *Massachusetts Institute of Technology* erakundeko Sloan Negozio Eskolan hitzaldia, non *Basque Cybersecurity Centre*-ren ikerketa-jarduerak aurkeztu baitziren, **Zibersegurtasunaren** esparruan; Euskadiko Mugak Nazioarteko Arkitekturaren Biurteko Azokaren antolaketa, **Etxebizitzaren** arloan; edo Ertzaintzaren aurkezpena Milipol Barne Segurtasunaren Munduko Aretoan, **Segurtasunaren**.

Azkenik, bektore honetan aipatu behar da herrialde-marka Euskadiko nazioartekotze-ekosistemako eragileen esperientzia-eremuekin lotuta dauden **nazioarteko sareetan** ere zabaldu dela, adibidez, Nekazaritzan, Arrantzan eta Elikadura-politikan (Euromontana edo Regal sareetan), Ingurumenean (Regions4 SDG), Kanpo Harremanetan (ERRIN edo Vanguard Initiative), Hezkuntzan (EU Stem Coalition), Hizkuntza Politika (NPLD – Network to Promote Linguistic Diversity), edo Lanbide Heziketa (Tknika UNESCO-UNEVOC zentroen sarean).

2. irudia. Jardueren proportzioa B1. Euskadi Basque Country marka atzerrian proiektatzea bektorearen barruan, jarduera eremu tematikoen arabera



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

2019an, 1. sektorean eragina izan duten jarduera gehienak arlo hauetakoak izan dira: **Enpresen Nazioartekotzea (% 20,60), Kultura (% 14,61), Kanpo Harremanak (% 9,36) eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura (% 9,36)**. Aurrekoak sektore honetako jardueren %5 3,93 osatzen dituztelarik.

2.2 2. sektorea: “Interes sektorialak bultzatu eta sustatzea”

Bigarren urtez jarraian, 2019an, **2. sektorea “Interes sektorialak sustatu eta bultzatzea”** berriz ere nazioartekotze-ekintza gehien garatu dituen sektorea izan da: 298 ekintza izan dira, guztizkoaren % 33,90.

2019an zehar, sektore horren jarduera **aldebiko eta erakundeen arteko harremanak sustatzera, nazioarteko proiektu eta sareetan parte hartzera eta hainbat sektoretako euskal eragileak nazioartekotze-ekintzetan eta erreferentziazko ekitaldietan parte hartzera bideratu da.**

Ildo horretan, azpimarratzekoa da **Enpresen Nazioartekotzearen** eremuan egindako jarduera etengabea; izan ere, hau baita euskal eragileen proiektzioa atzerrian bultzatzeko jarduera gehienak mugitzen dituen motorra, bereziki, euskal enpresei laguntza emanez **Basque Trade Investment – Nazioartekotzeko Euskal Agentziaren Kanpo Sarearen bidez**. Jarduera hori, batez ere, **euskal enpresak eta enpresaburuek planeta osoko foro, azoka, kongresu eta mintegietan babestuz eta lagunduz** egiten da. Ondo baino hobeto erakusten dute eremu honetan egindako jarduera, besteak beste, Metalexpo Errusian (Fabrikazio Aurreratua), Automechanica Birmingham (Automozioa), INTEK Leipzig (Makina Erremintak), EP Shanghai eta Floating Offshore Wind Aberdeen (Energia) azoketan, Bauma Azokan (Eraikuntza), Logimat Stuttgart azokan (Eraikuntza) bezalako ekitaldi eta erakusketa areto batzuetan izandako presentzia. Horri esker euskal enpresak eta industriak mundu mailako merkatuetan kokatzeko aukera izan da, eta, gainera, Euskadi lurralde industrial eta berritzaile gisa sustatu da munduan zehar.

Harreman instituzionalak sustatzeari dagokionez, Euskadiren interes sektorialak bultzatzeko helburuarekin, **Kanpo Harremanen** arloan egindako lana azpimarratu behar da, bertan sakondu baitira ordezkari instituzionalekin eta alde anitzeko erakundeekin izandako alde biko harremanak. Ildo horretan, Euskadiren aldebiko harremanak indartu egin dira, bereziki, **Urkullu lehendakariak hainbat herrialde, eskualde eta nazioarteko erakundetara egindako bidaia ofizialen bidez**. Hala, Lehendakariak, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarekin batera, migrazio-erronkari buruzko *Share Proposamena* aurkeztu ahal izan zuen Vatikanon, Aita Santuaren aurrean. New Yorkera egindako bidaiaren ere, Nazio Batuetara egindako bisita zela eta, NBE Batzar Nagusiko presidente den *María Fernanda Espinosarekin* eta New Yorkeko alkateordearekin bildu ahal izan zen. Lehenkadariak Nazio Batuen Goi Mailako Foro Politikoa parte hartzeak Euskadiren kanpoko proiektzioan eragin handia izan du, Lehendakari baten lehen parte hartzea izanik. Gainera, *Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren* egileetako bat den *René Cassin* Baionako legelariariak lortutako Bakearen Nobel sariaren 50. urteurrena zela eta, lehendakaria Estrasburgora joan zen, eta bilera bat izan zuen *Guido Raimondi Giza Eskubideen Europako Auzitegiko presidentearekin* eta

Christos *Giakoumopoulos* Europako Kontseiluko Giza Eskubideen zuzendari nagusiarekin. Era berean, *Jean Paul Costa* Estrasburgoko Giza Eskubideen Nazioarteko Institutuko (*Rene Cassin Fundazioa*) presidentek ere harrera egin zion.

Gainera, **Lehendakariak ordezkari instituzional garrantzitsu ugari hartu ditu Euskadin**, Euskadirentzat lehentasunezkoak diren eskualde eta herrialde askotatik, besteak beste, Txinako Jiangsu probintziako gobernadore ordearen eta Japoniako Fukushima eta Mie eskualdeetako gobernadoreen bisitak. Jiangsuren kasuan, topaketak 2012an sinatutako elkar ulertzeko memoranduma berritzeko eta elkarrekiko interesa indartzeko balio izan zuen ekonomia, merkataritza, kultura edo hezkuntzaren arloetan. Fukushimaren kasuan, energia berriztagarrian aplikatutako teknologien, efizientziaren eta energia-biltegitratzearen gaineko memorandum bat sinatu zen. Mie prefekturaren Gobernuaren bisitan, *Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak* lankidetzak memorandua sinatu zuen, erromesen ibilbideen inguruko lankidetzak sustatzeko.

Elkar ulertzeko memorandumei dagokienez, urrian **Lehendakariak eta Jean-René Etchegaray Iparraldeko Mankomunitateko Presidenteak bi lurraldeen arteko lankidetzak aurreikusten zuen dokumentua sinatu zuten**, 2017an sortutako euroeskualdearen erakunde berriarekin loturak garatzeko duten konpromisoa indartuz. Euskararen, kulturaren, migrazioaren, garraioaren eta lurralde-politikaren alorretan partekatutako interesak nabarmentzen dira.

Bereiztekoa den beste harreretakoa bat da Christos Stylianides *Giza Laguntza eta Krisien Kudeaketarako komisario* europarrarena Ajuria Enea jauregian. Topaketa honetan munduko krisi humanitario nagusien agenda erreparatzeko balio izan zuen, bereziki errefuxiatuek pairatzen duten krisi humanitarioari eta Venezuelako egungo krisi humanitarioari erreferentzia eginez. Euskadi bisitatu zuten beste batzuen artean daude: *Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko* Lehen Ministroa eta *Portugalgo Nazioartekotzeko Estatu Idazkaria*. Azkenik, Lehendakariak izandako kanpo-jarduerari dagokionez, besteak beste, Erresuma Batua, Lituania, Alemania, Frantzia, Panama, Costa Rica, Australia eta Brasilgo enbaxadoreekin izandako bilera guztiak jaso behar dira.

Aldi berean, Kanpo harremanen eremutik ere, beste alde biko harremanak bultzatu dira beren zuzendaritza desberdinen bidez. Adibidez Europako Gaietarako Zuzendariak, Etxepare Institutuko zuzendariarekin batera, Eskozia bisitatu zuten, eta herrialdeko esparru akademiko eta politikoko hainbat pertsona ospetsuekin bildu ziren, lan-eremu desberdinetan dauden harremanak sendotzeko.

Bektore honetan jarduera handia erregistratu zuen beste eremu bat, nazioarteko proiektuetan parte hartzeari lotutakoa bereziki, **Unibertsitate eta Ikerketaren** arloa izan zen. Eremu horretan euskal ikertzaileentzako nazioartekotze-programetarako laguntzak ematen jarraitu zen, eta aktibo mantendu ziren nazioarteko izen handiko unibertsitateekin (Oxford, esaterako) doktoregaiak trukatzeko loturak. Era berean, Euroeskualdearen barruan eta, bereziki, *Euskampus* ekimenaren barruan, nabarmentzekoa da Adimen Teknologikoko Laborategi bat jarri zela abian Bordeleko Unibertsitatearekin batera, 4Gune proiektuaren esparruan, edo goi-mailako irakaskuntzako hezkuntza berritzeko "Ocean i3" proiektuaren esparruan, Euskal Herriko eta Akitaniako mugaz gaindiko itsasertzean ekonomia urdina garatzeko.


Eremu **Kulturalean** ere, euskal eragileei lagundu zaie beren interesak sustatzen, Cannesen egindako *Mipcom eta MipTV* bezalako ekitaldietan. Ekitaldi horietan, euskal enpresek beren produktuak eta zerbitzuak sustatu ahal izan dituzte *Basque Audiovisual* izenarekin. Euskal konpainiek eta artistek *Rochelleko Sunny Side of the Doc* zinema dokumentalaren merkatuan edo *Rotterdamgo Classic Next* musika klasiko eta garaikidearen merkatuan parte hartzea ere bultzatu da.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura arloari dagokionez, lan handia egiten jarraitu da Europako kontinentean, *Caprice* bezalako proiektu berrietan (Europako produktuak hirugarren herrialdeetan sustatzeari buruzkoa) edo *Life Healthy Forest* proiektuan ("*Early Detection and Advanced Management Systems to reduce forest decline caused by invasive and pathogenic agents*"). Pirinioetako naturalak). Baina arreta berezia jarri behar zaie *Interreg- POCTEFA* mugaz gaindiko proiektuei, hala nola *GREEN* (Pirinioetako parke nazionalak eta naturalak sarean jartzea) edo *CANOPEE* (Pirinioetako zuhaitzen jarraipena klima-aldaketaren aurrean) bezalako lankidetzako proiektuei.

Aurrez azaldutako jarduera eremuak bektore honetan egindako ekintzen artean nabarmenenak badira ere, ezin ditugu aipatu gabe utzi Euskadiren interesak defendatzeko balio handia izan duten beste ekarpen batzuk. Adibidez, **Berdintasunaren** arloan, Emakundeko zuzendaria NBE Emakumeak erakundeko Europako Eskualdeko Zuzendariarekin eta Nazio Batuen Biztanleria Funtseko Europako Eskualdeko zuzendariarekin bildu zen. Topaketaren helburua elkarren arteko lankidetzarako bide berriak aztertzea izan zen, besteak beste, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea eta desagerraraztea arloetan. 2019an, *UNESCO Emakumea, Zientzia eta Teknologia Katedrarekin* ere harremanak izan zire, lankidetzarako bide posibleak aztertzeko.

Beste eremu batzuetan ere lagundu da bektore honetara, hala nola **Ingurumen**, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak Txileko Etxebizitza eta Hirigintza Ministerioarekin babes ofizialeko etxebizitzaren eta hiriguneak berroneratzearen arloan sinatutako Elkar Ulertzeko Memorandumarekin, edo Txileko Presidentziaren Idazkaritza Nagusiaren eta Irekiaren artean **Gobernu Irekiaren** eta gardentasunaren arloan lankidetzan aritzeko izandako harremanetan; azken hau tamalez ezin izan gauzatu Txileko Ministerio-aldaketen ondorioz. Esan beharra dago memorandumak garatzeko lankidetzak jarraia izan da: topaketak, bideokonferentziak eta etengabeko informazio-trukea. Beraz, akordioa 2020an gauzatzea espero da. Bestalde, **Ogasun eta Ekonomia** alorretik Pirinioetako Lan Elkartean egindako lana nabarmendu behar da. Bertan, hurrengo zazpi urteko *Interreg Poctefa Lankidetzako Programaren* orientazio estrategikoak ezarri ziren, bai eta *FEDER Euskadi 2021-2027* programarako plangintza estrategikoan egindako lana ere; edo **Osasunaren** eremuan, EIP Aha Europako Batzordearen plataformaren barruan hainbat proiektutan lankidetzan dihardu zen.

3. irudia. Jardueren proportzioa B2. Interes sektorialak sustatu eta bultzatzea bektorearen barruan, jarduera eremu tematikoen arabera



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

2019. urtean, batez ere 2. bektorean eragiten duten jarduerak nagusiki **Enpresak Nazioartekotzeko (% 36,24)** eta **Kanpo Harremanetako (% 30,20)** eremuetatik zuzendu dira, batera gauzatutako jardueren % 66,44 osatu dutelarik.

2.3 3. bektorea: “Garapen iraunkorreko erronka globalei erantzuten laguntzea”

Hirugarren bektore honek lotura zuzena du euskal gizarteak erronka globalen aurrean duen erantzukizunarekin. Hau kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzak nazioarteko politiketan giza garapenerako ikuspegi iraunkorrak sustatzeaz gain, **Nazio Batuen Garapen Iraunkorreko 17 Helburuak (GIH)** ezartzeko laguntza ere ematen die beste euskal erakunde publiko batzuei eta intereseko beste erakunde batzuei. Ekintza horiei esker, Euskadi 2030 Agendari egiten zaion ekarpenean nazioarteko erreferente gisa kokatu ahal da; izan ere, herrialdea etorkizuneko proiektu bat duen, maila anitzeko gobernantza-logika batetik eta agertoki globalaren erronkekin lerrokatuta dagoen lurralde gisa islatzen saiatzen delako.

2018an **Euskadi Basque Country 2030 Agenda** onartu zen, aurreko motibazioak biltzen dituen eta Gobernu Programak GIH-en helburu eta xedekin duen lerrokatze eta ekarpen-maila islatzen duen dokumentua, alegia. Dokumentua kaleratu zenetik bektore honen jarduera handitu egin da 116 jarduera nagusirekin, guztizkoaren %13,20-raino.

Kanpo Harremanetako eremuan, euskal gizarteak 2030 Agendarekin duen konpromisoa nazioartean zabalitzea **sustatu da, aliantzak eta lankidetzak garatuz, eta gaiari buruzko ikastaro, jardunaldi eta ponentziak antolatuz eta parte hartuz.**

Bereziki aipagarria da **Lehendakariak Nazio Batuen Goi Mailako Foro Politikoaren** barruan "Konpromiso globaletarako Tokiko Ekintza" foroan **parte hartu izana**; lehendakari bat Nazio Batuen Foro Ofizialera gonbidatzen den lehen aldia baita. Euskadi, 2030 Agenda eta GIH-ak ezartzeko aurrerapenak aurkeztera gonbidatu zuten, baina bereziki, "**Euskadiko Bonu Jasangarriak**" jaulkitzeko esperientzia aurkeztera; izan ere, horiei esker, Eusko Jaurlaritzak 1.100 milioi euro eskuratu ditu, inbertsio sozial eta ingurumen inbertsioak egiteko. 2030 Agenda ezartzeko Euskadik izandako izaera aitzindariak foro horretara gonbidatua izatea ahalbidetu du. Foro hori Nazio Batuen Garapen Jasangarriko plataforma nagusia da, eta funtsezko eginkizuna du garapen jasangarriko 2030 Agenda eta Garapen Jasangarriko Helburuen (GIH) maila globaleko jarraipen eta berrikuspenean.

Era berean, Jaurlaritzak Estatu Batuetan duen ordezkariak *Nazio Batuen Giza Gaiak Koordinatzeko Bulegoan (OCAH)* esku hartu zuen Euskadik proiektu eta laguntzen bidez agentzia horri egin dion ekarpen historikoa azaltzeko. Azkenik, Nazio Batuei dagokienez, azpimarratu behar da NBE Habitategin memorandum bat sinatu dela, Agendaren hiri-dimentsioa babestean eta Euskadin ezartzeko prozesua laguntzean oinarritzen dena.

Esparru horren barruan ere, eta Euskadin gauzatutako jarduera nagusietako bat bezala, nabarmentzekoa da **Alianza Euskadi Basque Country 2030 Gunea** proiektua abiarazi izana. Horren bidez, tailerrak egin dira hainbat eremutako 17 euskal erakunderekin, Agenda 2030 ezartzen laguntzeko eta, horrela, haien erakundeak, ingurunea eta euskal gizartea hobetzeko helburuarekin.

Hirugarren sektoreari egiten zaion ekarpenaren eragile nagusietako bat denez, beharrezkoa da **Garapenerako Lankidetzaren** esparruan egindako jarduera bizia islatzea. 2019an, larrialdi humanitario gero eta handiagoi eta nazioarteko deiei erantzuteko erantzukizunarekin, lehen aldiz egin zaio ekarpena *Nazio Batuen Larrialdi Kasuetako Ekintzarako Funts Zentralari (CERF, ingelesezko siglengatik)*. Esparru honetatik, halaber, **euskal proiektu eta eragileentzako laguntzak bultzatu dira**, ekimen hauek berrargitaratuz: garapenerako lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko bekak, Nazio Batuen sistemako nazioarteko erakundeetako lankideei laguntzak, *Ignacio Ellacuría Saria*, eta lankidetzaren erakunde euskaldunentzako laguntzen deialdi berri bat, genero-berdintasunaren aldeko antolaketa-aldaketako prozesuak sustatzea helburu zuena. Era berean, Euskadik PLATFORMA sarearen zuzendaritza-batzordean, lan-bileretan eta foroetan parte hartu du. PLATFORMA garapen jasangarriko nazioarteko lankidetzako tokiko eta eskualdeko gobernuen koalizio pan-europarra da.

Enpresa-nazioartekotzearen eremuan, alde anitzeko harremanak sustatu dira, beste lurralde batzuekiko lankidetzaren sustatzeko eta, horrela, erronka globalei erantzuten laguntzeko. Ildo horretan, **alde anitzeko erakundeekin izandako harremanak** aipa daitezke, hala nola Afrikako Garapen Bankua, Munduko Bankua edo Berreraikuntza eta Garapenerako Europako Bankua. Bestalde, aipatu behar da, EAEko hiru patronalekin batera, GIH integratzen dituen enpresak kudeatzeko programa bat garatu dela. Programa horrek, doakoa den online plataforma baten bidez, 2030 Agenda inplementatzen laguntzen die euskal enpresei beren negozioetan, SGD Compass metodologia aplikatuz.


Berdintasunaren arlotik, aktiboki lagundu zaio sektore honi, batez ere mintegi, sinposio eta hitzaldietan lankidetzan jardunez. Mintegi, sinposio eta hitzaldi horietan, Euskadin **Emakundek aplikatutako politikak eta jardunbide egokiak azaldu dira**. Aipatzekoa dira, besteak beste,

Gizonduz programaren aurkezpena, maskulinitateei buruzko "#InvolveMen: Redefining masculinities" mintegian, Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluak (CMRE) antolatua; Emakunderen lehen partaidetza CSW63 ekitaldian, *Emakumeen Egoera Juridiko eta Sozialaren 60. batzordean* herrialdeentzat ezarritako helburuak berrikusteko (NBE Emakumeak – ONU Mujeres); edo UNFPAk antolatutako "*Leaving no-one behind: Ensuring rights for women and young people with disabilities*" heziketa tailerrean parte hartzea. Era berean, UNFPArekin (Nazio Batuen Biztanleria Funtsa) izandako bilera nabarmendu behar da. Horren ondoren, Emakundek "*We Decide*" programara atxikitu zen, dibertsitate funtzionala duten emakumeen eta gazteen eskubideak, indarkeriarik eta generorik gabeko bizitza izateko eskubidea eta sexu- eta ugalketa- eskubideak sustatzeko.

Osasunaren esparrua, bereziki bereizten da bektore honen barruan, oso aktiboa delako nazioarteko proiektuetan kolaboratuz, eta era berean beste euskal eragile batzuk, bai sektore publikoak nola sektore pribatukoak zein akademikokoak, nazioarteko proiektuetan tartean sartzen lagunduz. Arlo horretan, Europako lankidetzaren proiektu askotan parte hartu du, hala nola ITHACA-n, zahartze aktiboarekin eta osasungarriarekin lotuta; YOUNG50 proiektuan, bihotzeko arazoekin lotuta; edo *European Innovation Partnership on Active and Healthy Ageing "EIP-AHA"* lankidetzan, zahartze aktiboari buruz; Euskadi abangoardiako lurralde gisa kokatzen lagundu dutenak, eta bere osasun-sistema eta ikerketa medikoa hobetzeko konpromiso sendoa duela.

Aurrez azaldutako esparruek inplementatutako jardueraz, beste eremu batzuetako jardueraz gehigarri batzuk ere aipa genitzake. **Lanbide Heziketaren** esparruan, Tknikak, UNEVOC (Hezkuntza eta Lanbide Heziketarako Unesco Zentroa) sareko zentroa denez, sare horretako I-Hubs eta Bilt proiektuetan kolaboratu du. **Gizarte Politiken** arloan, azpimarratzekoa da Share ekimenari bazkide berriak atxiki zaizkiola, bai eta ekimen hori Europar Batasuneko ordezkariari eta organoari aurkeztu izana ere. Azkenik, **Enplegu eta Gizarte Politiketako** Sailak aurkeztutako "gizarte-babeseko euskal ereduagatik" jasotako saria aipatu behar da, ORU/Fogar sareak eta NBPk (Nazio Batuetako Garapen Programak) emandakoa. Bereziki garrantzitsua da agerian uztea dagoeneko 6 sari lortu dituztela euskal erakundeek lehiaketa hau abian jarri zenetik.

4. irudia. Jardueren proportzioa B3. Garapen iraunkorrerako erronka globalei erantzuten laguntzea bektorearen barruan, jarduera eremu tematikoen arabera



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

2019an, batez ere 3. bektorean eragina duten jarduerak **Kanpo Harremanen** (% 21,55), **Garapenerako Lankidetzaren** (% 20,59), **Enpresen Nazioartekotzearen** (% 12,07) eta **Berdintasunaren** (% 10,34) esparruetatik zuzendu dira nagusiki, eta bektore horren barruan egindako jardueren % 64,65era iritsi dira.

2.4 4. bektorea: “Europaren proiektuari laguntzea”

Europar Batasunak, 2019an zehar, funtsezko hainbat prozesuri aurre egin zion bere baitan hartzen duen Herrialdeen Erkidegoaren bilakaerarako, bai bere legegintza-organoak eta betearazpen-organoak berritzeagatik, baina batez ere azken horietatik Erresuma Batuen irteteagatik. Europako Parlamentuko hauteskundeak, Europako Batzorde berriaren eraketa edo Brexit-aren irteera-aldiaren amaiera izan dira, besteak beste, urtean zehar gertatu diren gertaerarik garrantzitsuenak. Gogoeta-testuinguru horretan, laugarren bektore horren barruko ekintzek **Euskadiren eta haren eragile sozioekonomikoen ahotsa zabaltzeko balio izan dute, etorkizuneko Europaren eraikuntzan eta definizioan, organoetan, foroetan, sareetan eta abarretan parte hartuz**. Bere pisuagatik eta eraginagatik, bektore hau hirugarren bektorea izan da pisuari dagokionez, guztira 139 akzio eta % 15,81eko pisu erlatiboarekin.

Bektore horretan garrantzi berezia hartzen du **Kanpo Harremanetarako** eremuak; izan ere bere 2018-2020 Kanpo Harremanetako Estrategian **"Euskadik Europan duen presentzia indartzea"** helburua garatzen da. Honek **Euskadik Europar Batasunaren erabaki-prozesuetan parte hartzea sustatzera eta euskal eragileek EBren proiektu eta ekimenetan parte hartzea** erraztera bideratutako ekintza-ildoak jasotzen ditu. Horrek esan nahi du, beraz, kanpo-harremanen eremutik bektore horretan gauzatutako ekintza eta ekimen asko koordinatu direla, gero beste eremu batzuek gauzatu dituztenak.

Lehenik eta behin, EBren erabaki-prozesuei dagokienez, nabarmentzekoa da EBko Kontseiluan parte hartu izana, bereziki **ECOFIN Kontseiluaren** lantaldeetan, non Euskadik legegintza-arloko bere ikuspegiak defendatu dituen. Aldi berean, ahalegin handiak egin dira **Eskualdeetako Lantaldean** Euskadiren ahotsa jasotzeko. Eusko Jaurlaritzak Batzorde horretako osoko bilkuretan parte hartu du, eta zuzenketa ugari aurkeztu ditu bere interesen alde.

Era berean, **aliantzak sustatu dira elkar ulertzeko memorandumak izenpetzearen bidez**, hala nola *Shift2Rail* Lankidetzaren publiko-pribatuarekin sinatutakoa, **edo Europako Batzordearen ekitaldietan euskadiren proiektioaren bidez**, horrela Euskadiko Baso Bioekonomiaren Ibilbide Orria (EUBioScene2019), Euskal Enpresa-Unibertsitatea Estrategia (University-Business Forum) edo Euskal Unibertsitatearen ekimena (University-Business Forum) bezalako proiektuak aurkeztu dira agente eta erakunde desberdinen artean. Bereziki esanguratsua izan zen euskal eragileek **Bruselako Eskualdeen eta Hirien Europako Astea**n parte hartu izana.

Paraleloki, jarduera eremu honetatik **Euskadiren ikuspegiak eta posizionamenduak** partekatu dira datozen urteetan **Europar Batasunak izango dituen erronkei aurre egiteko**. Arlo horretan, Euskadik etorkizunari buruzko bere ikuspegiak zabaltzeko eta partekatu du, Europako Lurralde Lankidetzaren

etorkizunari buruzko Manifestua (5. osagaia) edo NPBren Plan Estrategikoei buruzko Manifestua bezalako txostenak eta manifestuak argitaratuz eta sinatuz. Dokumentu horiek Europako hainbat erakundetan aurkeztu ziren.

Kanpo Harremanetatik ere, **Erresuma Batua Europar Batasunetik ateratzeko prozesuaren aurrean Euskadik dituen sektore anitzeko interesak defendatzeko**, Euskadin jardunaldiak eta ponentziak antolatzen lan egin du, bai eta **Eusko Jaurlaritzaren Brexit-aren Jarraipen Batzordearen** bidez ere. Batzorde hori 2017tik dago martxan, eta 2019an bi bilera egin dira, bata urtarrilean eta bestea urrian. Era berean, gure gizarteak gai honetan duen errealitatearen berri emateko, udako ikastaro batzuk antolatu ziren, zeinetan herritarrei eta enpresari buruzko gaiak jorratu ziren, eta Europako hainbat tokitako adituek parte hartu zuten, baita Erresuma Batukoek ere.

Gainera, **Europako gaiei dagokienez Estatuarekiko harremanei dagokienez**, aipagarria da aktiboki parte hartu dela Europar Batasunaren inguruko Gaietarako Konferentziaren (**CARUE**) bileretan, bai osoko bilkuran, bai koordinatzaileen prestakuntzan.

Etxean ere, Euskadin, Kanpo Harremanetako esparruan **Europaren ikuspegia Euskadin zabaltzen** lagundu du, Europako balioak barreiatzeko balio izan duten ekitaldiak antolatuz eta babestuz, hala nola, **Europako Kontseiluaren 70. urteurrena ospatzea Donostiako Kursaal**en, erakundeko -ordezkari gorenekin, Europaren Eguna Deustuko Unibertsitatean, "2019ko Europako Parlamenturako hauteskundeak" jardunaldia EHU-n, edo Euskadiko komunikabideetako arduradunen eta Jaume Duch Europako Parlamentuko Komunikazio-Zuzendari Nagusiaren eta Mikel Landabaso Europako Batzordeko Komunikazio Korporatiboko zuzendariaren arteko topaketa.

Gainera, bereziki garrantzitsua da txostenak argitaratzea EIES-en (Europako Informazioaren Euskal Sarea) webgunean eta Eusko Jaurlaritzaren eta haren sektore publikoaren web atarietan, hainbat eremutako programa, ekimen eta politikari buruz. Era berean, Europako Gaietarako Zuzendaritza arduratu da argitalpen- eta banaketa-baimenak izapidetzeaz, eta euskarara itzuli ondoren, Europar Batasuneko Argitalpen Bulegoak argitaratutako informazio-liburuxkak zabaltzeaz. Liburuxka horiek www.euskadi.eus webgunean ere eskura daitezke. Jarduera horien helburua da euskal eragile sozioekonomikoek ezagutza berriak lor ditzaten laguntzea, kanpoan dituzten aukerak indartzeko.

Azkenik, esparru horren barruan, garrantzitsua da **Europako sareetako lantalde eta organoetan (Vanguard Initiative, ERRIN edo CPRM sareak, besteak beste)** izandako lankidetzeta eta parte-hartzea azpimarratzea. Azken bi horiek diziplina anitzeko sareak dira, berrikuntzatik hasi eta energia-efizientziaraino heltzen diren talde tematikoekin.

Laugarren bektoreari ekarpen nabarmena egin dion beste jarduera eremu bat **Lanbide Heziketa** da. Hemen azpimarratzekoa da, Europar Batzordeak Eusko Jaurlaritza eta EARLALL sarea, (gaur egun Euskadik sarearen lehendakaritza omen du) gonbidatu zituztela, erakundeak hala eskatuta, espezializazioaren eta ikaskuntzaren arloko lantalde batean parte hartzera. Europako proiektuari lagundu dioten beste jarduera batzuk dira mugaz gaindiko *PyreneFP proiektuan* parte hartzea, Euroeskualdeko lurraldeetan mugaz gaindiko gaitasunak sustatzeko, bai eta *Erasmus+* programaren barruko hainbat proiektutan lankidetzan aritzea ere. Nazioarteko sareetan garatutako jarduerari dagokionez, Tknikak Efvet (European Forum for Vocational Education) sarean egindako ekarpena bereizi behar da, eta sareko lantaldeen lehen topaketa antolatu Euskadin, nazioartekotzearen eta 4.0 industriaren lantaldeen buru delarik.

Bektore horren barruan, **Osasunaren** eremuan gauzatutako jarduera ere nabarmentzen da. Bertan, jardueraren zati handi bat Europako programa eta proiektuetan parte hartzera bideratuta egon da, hala nola *Gatekeeper*, *Ithaca*, *Connect4Children*, *Young50*, *Safe-NMedtech*, *Exact-2*, *Validate*, *mHealth-Hub*, *TB-Med* eta abar proiektuetan. Aldi berean, euskal osasun-sistemako hainbat eragileri lagundu zaie lehentasunezko eskualdeak, hala nola Flandriarekin, ezagutza trukatu zezaten, enpresen eta adituen arteko topaketa bioteknologiko baten bidez, edo Eskoziara bisita bat eginez, zahartzarorako teknologiak aplikatzeko erreferentziazko "*Health Aging Innovation Cluster*" erakundea ezagutzeko.

Aurreko esparruek bektore honetan garatutako jardueraren ia hiru laurden hartzen dituztela kontuan hartuta, jarraian beste eremu batzuetako ekimen interesgarri batzuk azaltzen dira, Europa mailan harremanak estutzen lagundu dutenak eta Europar Batasuna indartzeko euskal konpromisoaren erakusgarri izan direnak.

Unibertsitate eta Ikerketa eremu tematikoari dagokionez, modu aktiboan parte hartu da EU STEM Coallition plataforman, Europar STEM hezkuntza (Zientzia, teknologia, ingeniariaritz eta matematikaren akronimoa) garatzeko plataforma nazionalen sarean.

Azpiegituren eta Garraioen jarduera eremuan, Garraioetako sailburuordeak DG MOVE-ko zuzendariarekin egindako bilera aipatu behar da, bai eta EBko Korridore Atlantikoko foroetan egindako lana ere.


Berdintasunaren eremuan, Genero Berdintasunerako Europako Institutuarekin (EIGE, ingelesezko siglengatik) harremanak izan ziren, Europako Egitura eta Inbertsio Funtsetan aurrekontuak genero-ikuspegiarekin egiteko diseinatutako tresna batzuk testatzeko.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikaduraren eremuan, aipatu behar da ahalegin handienak European Network of Rural Development sareetako baso-bioekonomiaren arloko lan-bileretara edo EFI sarearen batzarrera (European Forest Institute) eta Euromontana sarearen (Mendiko Eskualdeen Europako Sarea) batzar orokorretara joateko egin zirela.

Enpleguaren arloan, Manuela Geleng Europako Batzordeko Enplegurako, Espezializaziorako eta Gizarteratzeko zuzendariaren bisita jaso zen.

Azkenik, **Kulturaren** esparruan, beharrezkoa da elkarlanari buruz hitz egitea, kultura eta sormen-proiektuak gauzatzeko RICC (Regional Initiative for Culture and Creativity) edo EUNIC (EU National Institutes for Culture) sareen barruan egindako lanarekin.

5. irudia. Jardueren proportzioa B4. Europaren proiektuari laguntzea bektorearen barruan, jarduera eremu tematikoen arabera



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

2019an zehar, batez ere 4. bektorean eragiten duten jarduerak **Kanpo Harremanen (% 48,20)** esparruan burutu dira gehienbat, bektore horren barruan egiten diren jardueren ia erdiak egiten baitira.

2.5 5. bektorea: "Ezagutza biltzea"

Testuinguruak gero eta lurrunkorragoak, konplexuagoak eta ziurgabetasun handiagoak dituen mundu honetan, ezagutzaren atzematea beharrezko premia gisa finkatzen da. **Abangoardiako beste lurralde eta herrialde batzuetako ezagutza, praktika eta esperientzia berriak bildu eta antzematea funtsezkoa da** gure etorkizuneko belaunaldien ongizatea ahalik eta gehien ziurtatzeko eta Euskadiri modu jasangarri eta orekatuan hazteko xedean laguntzeko. Ikuspegi horretatik, Euskadik eginkizun aktiboa hartzen du bere indarguneak eta ahuleziak abangoardiako herrialdeekin kontrastatzeko gai espezifikoetan, esparru globalean erreferentziatzeko eragile gisa kokatzeko.

Beste lurralde batzuetako "know how-a" xurgatzeaz gain, bektore horretan sartzen dira **nazioarteko talentua antzeman eta erakartzeko ekintzak**, Euskadi helmuga erakargarria izan dadin ezagutza-azpiegiturak ezartzeko, eta gazteek gogobetetze-maila handiko bizitza pertsonal eta profesionalak garatu ahal izan ditzaten. Era berean, 2019an, Eusko Jaurlaritzak eta haren sektore publikoak **sinposioetan, mintegietan eta foroetan parte hartzea** bultzatu da, jardunbide egokiak eta know-how-a biltzeko.

Bektore horren eremurik aktiboena **Enpresen Nazioartekotzea** izan da, nazioarteko mintegi, foro eta ekitaldi askotara joan eta parte hartu baitu, jardunbide egokiak ez ezik, herrialde eta merkatu berrietan aukera berriak ere identifikatzeko. Era berean, gutxiago ezagutzen diren, eta SPRIren zerbitzuak eskatzen dituzten enpresen eta BTIren kanpo-sarearen artean interesa pizten duten lurraldeetarako herrialde-txostenak eta sektore-txostenak egiten jarraitu da. Brexit-aren Jarraipen Batzordea, hainbat arlotako hainbat adituk osatua, funtsezkoa izan da, halaber, euskal enpresak prestatzeko, Erresuma Batua Europatik ateratzeko prozesuan.

Gainera, barne-hobekuntzako ariketa gisa, BTI-ren jarduera neurtzeko sistema berri bat ezarri da, Nazioartekotze Agentziaren unitateen datuak biltzen dituen. Sistema horrek Sarearen Bulegoen eta zerbitzuen jarraipen berezituak egitea ahalbidetzen du Bilboko egoitzatik.

Prestakuntza-ekintza gisa, BEINT eta Global Training beken deialdiak berrargitaratu ziren. Unibertsitate-tituludun gazteak nazioartekotzeko BEINT bekek, euskal enpresek eta erakundeek nazioartekotzearen erronkei eraginkortasunez erantzuteko profesionalen oinarri zabal bat izan dezaten laguntzen jarraitu dute. Bestalde, Global Training bekek unibertsitate-titulua eta goimailako lanbide-heziketa duten euskal gaztetzat atzerriko enpresa eta erakundeetan ordaindutako praktikak egiteko aukera ematen jarraitu dute, beren profil akademiko eta profesionalarekin lotutako jarduera eta proiektuetan, programak irauten duen 6 hilabetetan gutxienez.

Bestalde, **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren**, bai eta **Zibersegurtasunaren** eremuan ere, Basque Cybersecurity Centrek Miami "Digital Bond's S4" (AEBetako Industria Zibersegurtasuneko foro garrantzitsua) ekitaldian parte hartzea, Tel Aviveko CyberWeek azokan emandako hitzaldian, edota IT.SA Nuremberg eta Cybersecurity Nordic azoketara bisitak egiteko emandako laguntza aipatu behar da.


Lurralde Politikaren eremuan, metropoli politikei buruzko ezagutzak trukatzeko Metrex sareko sei hileko konferentzietan eta Zuzendaritza Batzordean, hiri-politikei buruzko Covenant of Mayors Investment Forum-ean edo Helsinki Impact bezalako konferentzietan parte hartzea azpimarratu behar da.

Kanpo Harremanen esparruan, ezagutza-trukea sustatu da Euskadirekin antzekotasunak dituzten lurraldeekin; Galiziarekin, esaterako, bere gobernuko hainbat ordezkariarekin hitz egin da, haiek daukaten diaspora zabalarekin egindako ekintzak eta esperientziak ezagutzeko. Era berean, ezagutzak eta jardunbide egokiak trukatzeko memorandumak sinatu dira, hala nola Galesko Gobernuarekin enpleguaren arloan. Politikak eta lankidetzak ikasteko jarduerak ere bultzatu dira, bereziki Europako testuinguruan, Interreg programa europarraren hainbat proiekturen parte-hartzearen bidez, hala nola Creadis3, sormen eta kultura-industrietako espezializazio adimendunari buruzkoa, edo S34Growth, industria-birmoldaketari buruzkoa. Prestakuntza ekintza gisa, 5 espezializazio-beka esleitu ziren profesionalentzat, eta horiek Gasteizko Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian eta Eusko Jaurlaritzak kanpoan dituen ordezkarietzan garatu dira.

Bostgarren bektorearen barruan gauzatutako ekintza gehienak orain arte azaldutako esparruak gauzatu badituzte ere, garrantzitsua da beste jarduera eremu batzuek bektore honetan egin dituzten ekarpenak aurkeztea. Esate baterako, **Nekazaritza, Arrantza eta Elikaduraren** esparruan, bio-ekonomiaren arloan inbertitzeko enpresa desberdinak bisitatzeko bidaiak egin dira, besteak beste, Austria edo Finlandia bezalako herrialdeetara; **Segurtasun** Sailak, Europako beste polizia-

kidego batzuekin ezagutza-truke handia izan du, adibidez Bavariako poliziarekin ezagutzak trukatzeko jardunaldiak antolatuz, edo Baden Württembergeko Barne Ministerioari eta poliziarri, Genevako kantoiko poliziarri eta beste erakunde batzuei bisitak eginez. **Ogasuna eta Ekonomiaren** eremuan, EUSTATEkin batera *European Network for Better Establishment Statistics* nazioarteko kongresua antolatu zen Bilbon; eta **Osasunaren** eremuan, Eskoziako Gobernuarekin memorandumaren Ekintza Plana garatzen lan egin zen.

6 irudia. Jardueren proportzioa B5. Ezagutza biltzea bektorearen barruan, jarduera eremu tematikoen arabera



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

2019an zehar, 5. bektorean eragina duten jarduerak arlo hauetatik egon dira zuzenduak bereziki: **Enpresen Nazioartekotzea (% 22,03)**, **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza (% 15,25)**, **Lurralde Politika (% 13,56)** eta **Kanpo Harremanak (% 11,86)**; denek guztira bektore honetan egindako jardueren %62,70 gauzatu dutelarik.

3 JARDUEREN ANALISIA ARLOKAKO EREMUEN ARABERA

Eusko Jaurlaritzak eta bere sektore publikoak burututako nazioarteko jardueraren areagotzea eta sakontzea helmuga hartuta, **nazioartekotzeko helburu eta bektore komunak zabaltzeko 29 jardueraren eremutan** jasotzen ditu Euskadi Basque Country 2020-EBC Estrategiak.

2019an, **eremu berri bat sartu da (Zibersegurtasuna)**, eta beraz Eusko Jaurlaritzak 29 arlo tematikoren bidez proiektatzen du bere nazioarteko irudia (2018an Lanaren eremua gehitu zen). Bestalde, ez da **inolako nazioartekotze-jarduerarik egin energiaren esparruan**, eta **ez da jardueraren nagusitzat hartu Gobernantza Publikoaren arloan erregistratutako** jarduerarik, beraz honako analisi hau egoera horretara egokituz.

Estrategiak Eusko Jaurlaritzaren aipatutako 29 arloen nazioarteko ekintzak kokatzen eta koherentziaz hartzen ditu. Azken xedea Euskadi *aktore global gisa kokatzea da, Europako proiektuaren eraikuntzan espazio propioa duena, herrialde kohesionatua, erakargarria eta lehiakorra, bere berezitasunagatik aitortua, giza garapen iraunkor maila altua duena, solidarioa, munduari irekia, eta atzerrian dagoen euskal komunitatearekin lotura estua duena.*


Jarraian, labur-labur aztertuko ditugu 2019an arlo tematiko bakoitzean nazioartean egindako ekintza nagusiak

3.1 Kanpo Harremanak

Kanpo Harremanen eremua da Eusko Jaurlaritzaren nazioarteko jardueraren instituzionalaren arduraduna, haren jardueraren ildoak 2018-2020 Kanpo Harremanetarako Planean jasota daudelarik. Gainera, sailen arteko koordinazioa eta erakundearen arteko lankidetzak hartzen ditu bere gain, EBC-tik jasotako helburuak lortzeko. 2019.

Urtean zehar, Kanpo Harremanetako arloko jardueraren **(B2) Interes sektorialak sustatu eta bultzatzea** eta **(B4) Europaren proiektuari laguntzea** egon da bideratua batez ere, **(B3) Garapen Iraunkorrerako erronka globalei erantzuten laguntzea** eta **(B1) Euskadi Basque Country marka atzerrian proiektatzea** bektoreak eta azkenik **(B5) ezagutza biltzea**, bektoreek ere jardueraren nabaria izan dutelarik.

7. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Kanpo Harremanen eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

Kanpo Harremanetarako idazkaritzak urtean zehar **Euskadiren interes sektorialak sustatuko (B2)** dituzten alde biko eta alde anitzeko loturak indartzeko eta sortzeko lan egin du. Alde anitzeko erlazioei dagokienez, azpimarratzekoak dira Lehendakariak Nazio Batuen Goi Mailako Foro Politikoan emandako hitzaldia edo Budapesten ospatutako Europako Eskualde eta Hirien Goi-Bileran izandako partaidetza, ekitaldi hauetan maila goreneko topaketak egiteko aukera izan baitzuen. Lehentasunezko eskualdeekin harremanak sustatzeari dagokionez, bisita instituzional desberdinak burutu dira; besteak beste, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak eta Europako Gaietarako zuzendariak Cardiff bisitatu zuten, Galeseko gobernuarekin 2018an sinatutako elkar ulertzeko memorandumaren garapenean aurrera egiteko. Euskadira etorritako agente desberdinen harrerek helburu hori lortzen ere lagundu dute; eta hemen, EEBB-tako Idaho estatuko gobernadorearen, Giza Laguntzarako eta Krisiaren Kudeaketarako Europako Komisarioaren edo Norvegiako Petrolio eta Energia Ministerioko Estatu-Idazkariaren bisitak nabarmentzen dira. Era beren, alde biko harremanak Jiangsu bezalako eskualde estrategikoekin ere sustatu dira, elkar ulertzeko memorandum berriak sinatuz, lotura sendo eta egonkorrak mantentzeko.

Europako proiektuaren eraikuntzari laguntzeari dagozkionez (B4), Europar Batasuneko erabaki prozesuetan Euskadiren parte hartzea indartzeko egin da lan batez ere. Urte hau funtsezkoa izan da Europako komunitatearen bilakaeran, Europako Parlamenturako hauteskundeak egin baitira, horrek maila politiko, sozial eta ekonomikoan dituen inplikazioekin. Aldi berean, Erresuma Batuak eta Europar Batasunak behin betiko akordioa lortu dute 2020ko urtarrilaren 31n lehenak Europar Batasuna usteko. Ildo horretan, Brexitaren prosezuan euskal enpresen interesak defendatzea oso garrantzitsua izan da. Era berean, aholkularitza pertsonalizatua ematen jarraitu da euskal eragile eta erakundeentzat, Europako erakundeekin dituzten harremanetan eta lankidetzaproiektuetan parte hartzearen sustapenean.

Bestalde, **Euskadi Basque Country (V1) markak atzerrian duen proiektzioa** areagotzeko ere lan egin da, bai Gobernuak atzerrian dituen ordezkarietzek bai Euskal Etxeek (adibidez, Euskal Aste Nazionala edo Buenos Aires Celebra al País Vasco, Argentinan) ekitaldiak antolatuz. Zentzu horretan, atzerrian dauden euskal interesen sustapena, erbestean dagoen **euskal komunitateari lagunduz egin da mundu osoan zehar banatutako 197 Euskal Etxeen bidez**. Gainera, aurten urte bereziki aktiboa izan da, nazioartean oihartzun eta irismen handia izan duten ekitaldi ugari egin baitira. Bereziki aipatzekoak dira honako hauek: **Basque Country Egunaren** lehen edizioa, nazioarteko euskal ordezkarietza zabalarekin, marka partekatu baten indarguneak eta balioak proiektatzeko balio izan zuena; Saregintzan lelopean Bilbon 19 herrialdeetako euskaldunen ordezkarietza bildu zituen **Kanpoko Euskal Gizataldeen VII. Mundu Biltzarra**; eta **II. Euskal Diasporaren Eguna**, munduko 17 herrialdetan 100 ekitaldik baino gehiagok babestu zutena. Azkenik, aipatu behar da beste jarduera estrategiko batzuk ere egin direla, hala nola Enara inkesta, kanpoko euskal komunitate zabalaren errealitate desberdinak ezagutzeko, edota euskal diasporak historian zehar egin duen ekarpena jasoko duen Euskal Diasporaren Artxioboari forma eta edukia ematen hastea.


Azkenik aipatu beharra dago, Kanpo Harremanetako idazkaritzatik **garapen iraunkorreko erronka globalei erantzuten laguntzeko (B3)** ere jardun dela, Bruselan European Week of Regions and Cities bezalako ekitaldi garrantzitsuen parte hartuz, non Euskadi 2030 Agenda ezartzeko esperientzia aurkeztu zen, edo beste gobernu batzuekin bilerak eginez, hala nola, Kanpo Harremanetarako Zuzendariak Mexikoko Errepublikaren Presidentziaren 2030 Kontseiluarekin izandakoa kasu.

3.2 Enpresen Nazioartekotzea

Kanpo Harremanen, Turismoaren, Garapenerako Lankidetzaren eta Kirolaren eremuekin batera, Enpresak Nazioartekotzea Estrategiaren ezarpena oinarritzen den zutabeetako bat da, esparru dokumentuan berean onartzen den bezala.

2019. ekitaldian zehar, esparru honen barneko jarduera, gehienbat, **Euskadiren interes sektorialak sustatzera eta bultzatzera (B2)** bideratu da hala ere jarduera handia erregistratu da **Euskadi Basque Country markaren proiektioaren (B1) bektorearen** barruan. Gainera, nahiz eta intentsitate txikiagoarekin, **garapen iraunkorreko erronkei (B3) eta europar proiektuari (B4) laguntzea**, eta **ezagutza biltzea (B5)** bektoreetan ere ekintza anitz gauzatu dira.

8. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Enpresak Nazioartekotzea eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

2018an **Basque Trade & Investment – Nazioartekotzeko Euskal Agentzia** sortu ondoren, 2019an urrats esanguratsuak egin dira bere behin betiko integraziorako. Agentziaren eta kanpoko bulegoen kudeaketa-plan bat balioztatu da, eta jarduera, emaitza eta inpaktua neurtzeko sistema berri bat ezarri da, Sareko Bulegoen eta Bilboko egoitzan eskaintzen diren zerbitzuen jarraipen berezituak egiteko aukera ematen duena. Aurten bereziki garrantzitsua izan da Brexit-aren eraginpean dauden euskal enpresei aholkularitza-zerbitzuak ematea.

Logikoa den bezala, **(B2) interes sektorialak sustatu eta bultzatzea** izan da ahalegin handienak bildu dituen bektorea. Enpresen sustapena, gehienbat Euskadiko espezializazio adimentsuko-estrategiaren erreferentziazko industriekin (RIS3) lotutakoa, **Euskadi Basque Country (V1) markaren euskarriaren** pean egin da **nazioartean garrantzia duten ekitaldi eta azoketan**.

Ondorioz, standak eta erakusketa guneak antolatu dira erreferentziazko ekitaldietan, hala nola Dusseldorfeko Medica Azokan (Bio-Sanitarioa), Hannover Messe Makina Erremintaren Azokan (Fabrikazio aurreratua) edo Wind Power China eta Offshore Aberdeen azoketan (Energia). Horietan, euskal abangoardiako enpresen proiektioaren bidez, Euskadiri hainbat atributu atzizkitzea lortu da, hala nola atributu industrialak edo berritzaileak. Aurrekoekin zerikusia duten eta Euskadin berebiziko garrantzia duten beste sektore batzuetako azoka eta aretoetan ere parte hartu da, hala nola Metalexpo Errusian (Fabrikazio Aurreratua), Automechanica Birmingham (Automozioa), INTEK

Leipzig (Makina Erreminta), EP Shanghai (Energia), parte hartu den ekitaldien zerrenda luze baten barruan.

Aipatzekoak dira, halaber, BIND 4.0 azelerazio-programaren aurkezpenak Europako hainbat hiritan, 4.0 industriari eta fabrikazio aurreratuari lotutako talentu berriak erakartzeko Euskadira, edo hainbat sektoretako enpresen eta partzuergoen alderantzizko misioak jasotzea, bai eta mundu mailako garapen-agentziekin eta inbertsio-funts publikoekin bilerak eginez harreman-sare bat ehuntzen jarraitzeko egindako misioak ere.


Europar esparruan, nabarmentzekoak dira Erresuma Batuan eta Alemanian BIND 4.0 programa sustatzeko egindako jarduerak, baita proiektu eta sareen barruan egindako bilerak, hala nola, European Enterprise Network sarean, non Aeronautika eta Espazioko sektore-taldean parte hartu den, Interreg S34Growth proiektuan edo Vanguard Initiative sarean. Aipatzekoak dira, halaber, inbertsio- eta garapen-agentziekin izandako bilerak eta lan-saioak, hala nola, Berreraikuntza eta Garapenerako Europako Bankurekin edo beste eskualde-agentzia batzuekin, horrela **garapen-erronka globalei (B3) lagunduz**, eta era berean euskal enpresentzako lankidetzak aukerak sustatuz.

Azkenik, eta **ezagutza biltzeari (B5)** dagokionez, nabarmentzekoa da azterlan sektorialak, herrialde-txostenak, alde anitzeko finantzaketa-aukerei buruzko txostenak eta abar egin direla, kanpoan dauden euskal enpresentzat negozio-aukerak sortzen errazteko.

3.3 Kultura

Kulturaren eremuak funtsezko garrantzia du Euskadi Basque Country markaren bereizgarria delako, eta beste gobernu eremu batzuk nazioartekotzeko aurkezpen gutunaren lana egiten du. Modu koherentean 2018an, eremu honen barruan nazioarteko jarduerak **Euskadi Basque Country markaren atzerriko proiektoria (B1)** bideratua egon da, eta neurri txikiagoan, **Euskadiren interes sektorialak sustatu eta bultzatzera (B2)**.

9. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Kulturaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

Ettxepare Institutuak euskal kulturaren nazioartekotzearen arduradun bezala, etengabeko lana egin du munduan zehar euskal kultura eta hizkuntzaren defentsan eta sustapenean, betiere **Euskadi Basque Country markaren (B1)** laguntzaz. Horrela 2019an, hainbat diziplinatako euskal artista desberdinek beren lanak aurkeztu dituzte mundu guztiko zinema-jaialdietan (Txileko Viña del Mar-eko Nazioarteko Zinema Jaialdian), liburu azoketan (AEBko Miami Book Fair), musika-jaialdietan (hizkuntza gutxituetako arte-adierazpenak biltzen dituen Udineko Suns Europe jaialdia) edo Komiki azoketan (Fete de la BD, Brusela). Gainera aipatu beharra dago sustapenerako ekintzak laguntza ekonomiko bidez ere lagundu direla.

Gainera, ekitaldi honetan, atzerriko unibertsitateetako euskara-katedrak dinamizatzen jarraitu da, eta beste katedra bat ireki da, bederatzigarrena Buenos Airesen, Zientzia Ikerketen Kontseilu Nazionalan (CONICET), Amale Artetxe izenarekin.


Azkenik, **interes sektorialen sustapena (B2)** nabarmendu beharra dago zenbait ekitaldietan parte hartuz, esaterako Tampereko (Finlandia) WOMEX- The World Music Expo azokan, euskal enpresek Miptv bezalako merkatu profesionaletan Basque Audiovisual markaren pean parte hartzea, edo Quebec-en Kanpai Dantza konpainiaren egoitza artistikoa bezalako ekintzen bidez.

3.4 Turismoa

Turismoaren eremua EBC Estrategia hedatzeko zutabeetako bat da. Izan ere, Euskal Turismoaren Gida Planak eta EBC Estrategiak euskal gizartearentzat ongizatea sortzeko ikuspegia partekatzen baitdute, kultura eta tradizioak mantenduz, eta, aldi berean, modu iraunkorrean haziz eta helmuga bikain eta espezializatu gisa sendotuz.

Horrela, eremu honetan 2019an egindako ekintzak **Euskadi Basque Country markaren kanproiektzioarekin (B1)** daude lotuta nagusiki.

10. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Turismoaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

Lurralde sustapena, **Euskadi Basque Country markaren laguntzaz (B1)**, munduko erreferentziazko ekitaldietan parte hartuz egin da, Euskadi helmuga turistikoa "boutique" bezala irimotuz. 2019ko gertaera garrantzitsuenetako bat *The Basque Route* proiektua, Berlingo ITB azokan, planetako


turismo-azoka garrantzitsuenean, turismo-agenteen eta prentsa-agenteen aurrean aurkeztea izan zen. WTM, FIT, Mundo Abreu, Reisen Hanburgo eta beste hainbat azoka entzutetsuetan ere parte hartu da. Era berean, Tour Españarekin zuzeneko sustapen- eta merkaturatze-jardunaldietan edo "roadshows" -etan ere lankidetzan egin da lan Txina, Suitza edo Italia bezalako herrialdetan.

3.5 Garapenerako Lankidetzan

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak nazioartean euskal gizarteak herrialde pobretuenekin duen konpromisoa eta elkartasuna helarazteko lan egiten du, batez ere hego hemisferiokoekin, erantzunkidetasunaren ikuspegitik eta herritartasun globalaren kontzeptu batetik, zeinek gizarte batzuen ahuleziak beste batzuek lortutako ongizate-mailarekin lotzen dituen.

2019an, eremu tematiko honetan erregistratutako jarduera gehienak **garapen iraunkorrerako erronka globalak konpontzen laguntzera bideratuta egon dira (V3).**

11. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Garapenerako Lankidetzaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Helburuekin erabat lerrokatuta dagoen eremu honetan, eta **Garapenerako Lankidetzaren Plan Zuzentzailearen** gidalerroen arabera garatzen dena, besteak beste herrialde pobretuagoekiko lankidetzan indartzea, emakumeek gizarte modernoetan duten eginkizuna indartzea edo gatazka-eremuetako bake-prozesuetan laguntzea bezalako helburuak ditu.


Testuinguru horretan, **diru-laguntzak ematea**, bai babes humanitarioko erakundeen bermatzea funtsezkoak izan dira **erronka globalen erantzunean (B3) balioa emateko**. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (GLAE) Ekintza Humanitarioko Estrategiaren apustuetako bat larrialdi humanitarioei erantzutea da, nazioarteko deiei edo funts globalei ekarpen ekonomikoak eginez. Horrela, ekitaldi honetan lehen aldiz ekarpen bat egin zaio Nazio Batuen Larrialdi Kasuetako Ekintzarako Funtz Zentralari (CERF, ingelesezko siglengatik).

Bestalde, zenbait bidaia egin dira hirugarren herrialdeetara, hala nola Kolonbiara edo Kamerunera, lurralde horietan egindako proiektu humanitarioak gertutik ezagutzeko eta erakundeekin aliantza berriak sortzeko asmoz.

3.6 Kirola

Kirolak Euskadiren atzerriko irudiaren proiektioari laguntzen dio, eta euskal gizartearekin erlazionatutako balioen proiektioari, hala nola, berdintasuna, integrazioa edo tolerantzia. 2019. urtean egin diren jarduerak orientazio argia daukate **Euskadi Basque Country marka atzerrian proiektatzera (B1)**.

12. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Kirolaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta


Esparru horretan, jarduera nagusia **Basque Team Fundazioak** Euskadin goi-mailako kirola sustatzeko eta euskal kirolariei nazioarteko erreferentzia ekitaldietan parte hartzen laguntzeko ematen dituen beketan oinarritzen da. Aldi berean, diziplina ezberdinetako kirol selekzioei ofizialtasuna lortzeko lan egin da, Euro Basque Rugby Challengea aurkeztu da Akitania eta Nafarroarekin elkarlanean eta lurraldean kirol ekitaldi garrantzitsuak egin dira, hala nola Euroligako Lauko Finala Gasteizen.

3.7 Gobernu Irekia

Gobernu Irekiaren eremuak Euskadi Gobernantza Publikoan berritzailea den Europako eskualde gisa finkatzen laguntzeko lan egiten du, herritarren lankidetzeta, zerbitzuen hobekuntza eta gardentasun publikoa sustatzen duten jardueren garapenarekin konprometituta dagoena.

2019an, jarduera eremu honetan egindako jarduera nagusi bakarra **Garapen Iraunkorrerako erronka globalei erantzuten laguntzeari** lotuta dago.

13. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Gobernu Irekiaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta


Ildo horretan, OGP (Open Government Partnership) Euskadi ekimeneko euskal ordezkariak, OGP 2019ko OGP Global Summit-era joan ziren Ottawara (Kanada) Euskadiren ordezkari gisa, Gobernu Irekirako Aliantzaren Tokiko Gobernuen programan parte hartzen zuen eskualde gisa.

3.8 Bizikidetzaren eta Giza Eskubideak

Eusko Jaurlaritzak, giza eskubideen aurkako mehatxu globalak dauden mundu honetan, errespetuan eta aniztasunean oinarritutako bakearen eta bizikidetzaren kultura defendatzen ahalegindu da.

Ildo horretan, 2019an erregistratutako jarduerak lotuta **daude Euskadiren interes sektorialen defentsarekin (B2)**, nazioarteko erakundearen lankidetzaren espazioetan eta esparru horrekin lotutako ekimenetan parte hartuz.

14. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideak eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

Nazioartean garatutako jardueren artean, nabarmentzekoa da Nazio Batuetako Giza Eskubideen Goi Komisarioaren Bulegoarekin harremanak sendotu direla, bere jardueretarako diru-laguntza izendun berri bat emanez. Gainera, Giza Eskubideen Defendatzaileentzako euskal programa berrargitaratu da, hiru pertsonak parte hartuta harrera-programan; eta ACNUR, UNICEF edo Itsas Salbamendu Humanitarioa bezalako erakundeei larrialdi humanitarioko deiak egiteko laguntzak onartu dira. Azkenik, Migrazioarako Euskal Itun Sozialaren aurkezpena aipatu behar da, migrazioa


bere adierazpen guztietan hartzeko eta integratzeko esparru gisa, euskal gizarte-erakunde eta instituzio guztiek adostutakoa.

3.9 Berdintasuna

Euskadi berdintasun-politikan Europako abangoardian kokatze aldera, eremu horretan gizonen eta emakumeen berdintasuna bermatzen lan egiten da, Euskadik eremu horretan duen konpromisoa gauzatuko duten politika publikoko tresnak indartuz. Horretarako, nazioartean, Emakunderen gidaritzapean, nazioarteko hainbat herrialde eta erakunderekin lankidetzan aritzea bultzatzen da.

2019an, eta aurrekoan oinarrituta, eremu honetan erregistratutako jarduera gehienak **garapen iraunkorrerako erronka globalak ebazten laguntzeko (B3) izan dira**, nahiz eta **Europako proiektuari laguntzea (B4)** bektorean ere jarduera esanguratsua erregistratu den.

15. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Berdintasunaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta


Berdintasunaren esparruak **garapen iraunkorrerako erronka globalei egindako ekarpenak (B3)** oso lotuak egon dira jardunbide egokiak eta politikak nazioarteko mintegi eta foroetan azaltzearekin, Latinoamerikari arreta berezia eman zaiolarik. Hala, nabarmentzekoa da NBE Emakumeak (ONU Mujeres) El Salvadorrek antolatutako "Emakumeen parte-hartze politikoa udal-eremuan" Foroan parte hartu izana, edo *Gizonduz programa* aurkeztu izana "Gizonezkoen eta Maskulinitateen Azterketen Nazioarteko VII. Solasaldian" Costa Rican. Bektore horretan, halaber, EmakundeK – Emakumearen Euskal Institutuak - bereziki areagotu du NBE Emakumeak erakundearekiko harremana, Latinoamerikako "Spotlight" Programaren arduradunarekin izandako lan-bileren bidez (programa horrek kontinentean emakumeekiko indarkeria desagerraraztea du ardatz) edo Biztanleriarako Nazio Batuen Funtsari diru-laguntza emanez "We decide" programa garatzeko. Azkenik, eta **Europako proiektuari egindako ekarpenari dagokionez (B4)**, interesgarria dira Genero Berdintasunaren Europako Institutuarekin (EIGE, ingelesez) izandako harremanak, Gipuzkoako Foru Aldundiak genero ikuspegia duten aurrekontuak egiteko diseinatutako tresnak, egitura- eta inbertsio-funts europarretan testatzeko.

3.10 Zientzia, teknologia eta berrikuntza

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana (ZTBP 2020) erreferentziatzen hartuta, eremu honetatik Euskadiren posizioa indartu nahi da, fabrikazio aurreratu, energia eta bio-osasuneko ikerketa-proiektuetan liderra den Europako eskualde berritzaile gisa.

2019an zehar, jarduera kopuru guztien erdia **Euskadi Basque Country marka atzerrian proiektatzera (B1)** egon dira bideratuak, eta beste erdia **ezagutza biltzera (B5)** eta neurri txikiagoan interes sektorialak **bultzatzera (B2)**.

16. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta


EBC marka proiektatzera (B1) lagundu duten jardueren artean nabarmentzekoak dira lehentasuneko herrialdetako ordezkartzen harrerak, hala nola Nuevo León eta Sinaloa Mexikoko gobernutik edo Bío-Bío eta Maule eskualdekoak Txiletik. Aldi berean, **ezagutza eta jardunbide egokiak (B5) biltzeko** lan egin da Europako Batzordearen Digital Innovation Hubs lantaldeetan eta bileretan, edota teknologia digital berriekin lotutako mundu mailako ekitaldietan parte hartuz.

3.11 Nekazaritza, arrantza eta elikadura

Nekazaritza, Arrantza eta Elikaduraren eremuaren helburua da euskal gastronomiaren sektorea nazioarteko erreferente bihurtzea, produktuen berrikuntzan eta ondasunen kalitatean oinarrituta, Euskal produktuak eta teknikak atzerrian merkaturatzeko, hedatzeko eta sentsibilizatzeko estrategia integral baten bidez.

2019 urten zehar jarduera gehienak **Euskadi Basque Country marka (B1) kanpoan proiektatzera** bideratuta egon dira, eta, neurri txikiagoan bada ere, **sektore-interesak (B2) sustatzen** eta bultzatzen lagundu da; azkenik, **ezagutza biltzea (B5)** eta **Europako proiektuari laguntzarekin (B4)** lotutako jarduerak ere erregistratu dira.

17. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Nekazaritza, Arrantza eta Elikaduraren eremuan




Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

Euskadi Basque Country marka (B1) nazioarteko garrantzia duten ekitaldi eta azoketan euskal ekoizleak babestu dituen aterkia izan da, hala nola London Wine Fair, Fancy Food Summer New York, Prowein Dusseldorf edo Seafood Global Brusela-n, bai eta Caprice Europako proiektuaren esparruan garatutako sustapen-ekintzetan ere. Bertan, sektoreko 20 enpresek Tokiora bidaiatu zuten beren produktuak erakustera. Bestalde, kanpoan **euskal interes sektorialak defendatzeko (B2)** interes estrategikoko sareetan parte hartzen jarraitu da, hala nola ERANET SuSAN sarea, animalia-ekoizpen jasangarriari buruzkoa, Euromontana sarea, mendi-eremuetako ikerketari lotutakoa, edo EFI sarea, baso-politiketarako ebidentzia sortzen duena. Azkenik, esparru horretan, Bio ekonomiaren aldeko Euskal Aliantzaren sorrera aipatu behar da, ekonomia dibertsifikatzeko eta Euskadiren garapen jasangarriari laguntzeko. **Ezagutza erakartzeari eta biltzeari (B5)** dagokionez, nabarmentzekoak dira Finlandiara edo Austriara egindako misioak, bio ekonomiaren arloko enpresa-ereduak bisitatzeko, kasu honetan ehungintzaren sektoreko bi ekimenetara.

3.12 Azpiegiturak eta Garraioak

Euskadi Europako korridore Atlantikoan puntu estrategiko gisa eta mugikortasun iraunkorren nazioarteko erreferentzia gisa nazioartean proiektatzen ardatzu da eremu hau. 2019an, eremu horretako jarduera nagusi gisa, **Europako proiektuari laguntzea (B4)** sektorean egindako ekintzak nabarmentzen dira, nahiz eta egia den ekintza zehatz batzuen bidez (B1), (B2) eta (B3) sektoreetan ere lagundu dela.

18. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Azpiegiturak eta Garraioen eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta


Europako proiektuari laguntzeko (B4) asmoz, Europako sare desberdinen foroetan parte hartu da, hala nola CER - *Community of European Railways* sarean Atlantikoko Trenbide Korridorearen Taldean, edo EuskoTrenen bidez, *Trenbideen Nazioarteko Batasunaren Abiadura Handiko Taldean* (UIC). **EBC markaren nazioarteko proiektuari (B1)** dagokionez, nazioarteko erreferentzia diren ekitaldietan parte hartu da, hala nola Nautic Paris edo Breakbulk Europe azoketan.

3.13 Enplegua

Enplegua Eusko Jaurlaritzaren jarduera politikoaren oinarritzko ardatza da XI. legegintzaldian. Nazioartean, Euskal Enpleguen Zentro Berezien" eredu nazioartekotzearen alde egiten du EBCK.

2019an, enpleguaren barruko jarduerak **interes sektorialak suspertzera (B2)** bideratuta egon dira eta neurri txikiagoan (B4) eta (B5) bektoreetara.

19. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Enpleguaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

Interes sektorialak sustatzeko (B2) ildo honetan, eskoziako Gobernuarekin sinatutako Akordio Memoranduma gailentzen da. Eskozia EBC Estrategiaren lehentasunezko eskualdea da, eta akordio honen bidez Euskadik lan-merkatuko politiken esparruan jardunbide egokien trukea eta elkarrekiko ikaskuntza sustatzeko konpromisoa hartzen du (gazteen enplegua, Lanbide Heziketa, emakumeen enplegua eta beste gai batzutan). Hori gauzatzeko, hainbat lan-bilera egin ziren Eskoziako Enpresa, Bidezko Enplegu eta Trebetasunen ministroarekin eta haren kabinetarekin.


Eremu tematiko honetan ekitaldien antolaketa ere aipagarria izan zen, Eusko Jaurlaritzak Donostiako Kursaal biltzar-jauregian antolatutako II. Nazioarteko Enplegu Kongresuaren barnean Lehen Prestakuntza eta Enplegu Merkalan azokaren ospakizunak nabarmentzen dira, edota mugaren beste aldean enplegua duten langileei mugaz gaindiko informazioa emateko jardunaldien antolaketa.

3.14 Gizarte Politikak

EBC-ren helburua da nazioartean euskal gizarte-zerbitzuen eredua eratzten duten politikak sustatzea, hala nola dibertsitate funtzionala duten pertsonen babesari buruzkoak, gurasotasun positiboko politikak, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta edo ekonomiaren eta berrikuntza sozialaren eta kooperatibismoaren arloan hartutakoak.

2019an, eremu honi lotutako jarduerak **erronka globalei erantzuten laguntzeko (B3) ETA Euskadi Basque Country marka atzerrian proiektatzera (B1)** bideratua egon da. Azkenik aipatu beharra dago, **interes sektorialen sustapenean (B2)** ere jarduera erregistratu dela.

20. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Gizarte Politiken eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta


Esparru honetan garrantzitsuak dira garapenerako **erronka globalak konpontzen laguntzeko (B3)** egindako ekarpena; bereziki, Share proposamenaren inguruko jarduerak nabarmentzen dira, migrazio-erronkari erantzuteko euskal ekimena. Ildo horretan, ekimenari atxikitako estatus azpiko eta tokiko beste gobernu batzuekin lan egin da, proposamena Europako erakundearen agenda igitzeko eta Europako Migrazio Itunerako ikuspegi berri bat eskaintzeko. Enplegu eta Gizarte politiketako Sailak Europa mailan lan egin du bereziki, Migrazioen Europako Foroan parte hartuz edo "Cities and Regions for Integration" bezalako proiektuetan lankidetzan arituz, eskualdeetako lantaldeak sustatu ekintzak biak eta **atzerrian EBC marka sustatzeko (B1)** balio izan dutenak.

3.15 Ingurumena

Euskal Adierazpenaren printzipioetan oinarrituta, lurralde produktibo, iraunkor eta erresilientea lortzeko ibilbide-orri gisa, ingurumenaren esparrua aukera-iturri bihurtu da negozio berriak sortzeko, baina, batez ere, GIH-ak lortzeko. Horregatik, eremu hau Euskadiren irudia kanpoan proiektatzeko eremu transzendental bihurtu da.

2019an, eremu horretako jarduera Euskadi Basque Country marka nazioartean proiektatzera (B1) bideratuta egon da nagusiki, nahiz eta Europaren proiektuari laguntzea (B4), eta neurri txikiagoan (B3) eta (B5) bektoreetan ere jarduerak erregistratu diren .

21. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Ingurumenaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

Testuinguru horretan, eta **EBC marka proiektatzea (B1) bektorearen barnean**, Euskadik erreferentziatzeko nazioarteko konferentzietan parte hartu zuen, hala nola Madrilgo COP25 edo New Yorkeko Climate Week-en. Horietan, Euskadin garatutako klima-ekintzei buruzko aurkezpenak egin ziren.


Bestalde, europar komunitate mailan, eta **Europako proiektuari egindako ekarpen gisa (B4)**, 2019an zehar Estatuko autonomia-erkidegoak ordezkatu dira Europako Batzordearen Klima Aldaketaren Batzordean. Gainera, aktiboki lan egiten jarraitu da dagoeneko presentzia finkatua duten sareetan, hala *nola nrg4sd, Regions4, Encore edo The Climate Group*.

3.16 Lurralde politika

Euskadi orekatu, kohesionatu eta iraunkor bat lortzeko, lurralde-politikaren esparruko nazioartekotzea jardunbide egokien trukearen eta eskualdeen arteko eta nazioarteko lankidetzaren inguruan jarduten da, bai eta hiri-agenda definitu, garatu eta ezartzearen inguruan ere.

2019an, eremu horren barruan, jarduerak oso bideratuta egon dira **ezagutza biltzera (B5)** lehenik eta behin, eta **erronka globalei laguntzera (B3)** bigarrenik, nahiz eta jarduerak erregistratu diren beste bektore guztietan (B1), (B2) eta (B4).

22. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Lurralde Politikaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

Ezagutza biltzeko (B5) eta, aldi berean, nazioartean lankidetzan aritzeko, aktiboki parte hartu da METREX sarean, esperientziak trukatzeko eta metropoli-gaietan eta -politiketan trebatzeko Europa mailako plataforman, bai udazkeneko eta udaberriko konferentzietan, bai administrazio-batzordean.

Urteko gertaera nagusi gisa, eta **garapen iraunkorrerako erronka globalei laguntzen (B3)** dien ekintza gisa, nabarmentzekoa da **Bultzatu 2050 Euskal Hiri Agenda** onartu izana. Dokumentu horrek Euskadiren garapena markatuko du datozen 30 urteetarako, eta ingurumen-politikek, hiri-habitata, energiak eta abarrek jarraitu beharko dituzten ildo nagusiak biltzen ditu. Dokumentu hori guztiz bat dator Europako Hiri Agendarekin eta Nazio Batuen Garapen Iraunkorreko Helburuekin.


Urte honetan, bereziki bizia izan da NBE Habitategin izandako harremana. Horren ondorioz lankidetzaren hitzarmen bat sinatu da Espainian duen ordezkariaren bidez, Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agenda hedatzeko eta proiektatzeko. Gainera, hainbat ekitalditan parte hartu da, Nairobiko egin duen bere lehen Batzar Nagusian.

3.17 Etxebizitza

Etxebizitza-eremuko nazioartekotzea etxebizitza-politiken euskal ereduaren barnean eta politika publikoko tresna berriak txertatzera dago bideratuta, lurraldean jardura berritzaileak garatu ahal izateko, eraikuntzan energia-eraginkortasunari edo etxebizitzak finantzatzeko modu berriei dagokienez.

Ildo horretan, 2019an garatutako jardueren erdiak **EBC marka proiektatzera (B1)** bideratuta egon dira, eta beste erdia **interes sektorialen sustapenaren (B2)** eta ezagutza biltzearen (B5) artean banatuta.

23. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Etxebizitzaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta


Marka sustatu eta proiektatzeko (B1) ekintza gisa, adierazgarriak dira Donostian egindako Arkitekturaren Nazioarteko II. Biurtekoa, Bilbon ospatutako Eraikuntza Aurreratuaren Nazioarteko Hirugarren Kongresua (CICA 3) eta Euskadiko eraikuntza-klusterrak antolatutako Arkitektura eta Hirigintzako Eraginkortasun Energetikoari eta Iraunkortasunari buruzko Europako hamargarren Kongresua (EESAP 10). Gainera, **euskal interes sektorialak bultzatzeko (B2)** ekintza gisa, aipagarria da Txilera Eraikunerekin batera egindako misioa, Gobernu nazionalarekin elkar ulertzeko memorandum bat sinatzeko, eta era berean toki-, eskualde-, enpresa- eta finantza-administrazioetako eragileekin aldebiko bilerak antolatzeko, sektorerako aukera berriak ezarri.

3.18 Ogasuna eta Ekonomia

Ogasun eta Ekonomia eremutik, Europako esparruarekin lerrotatutako politika baten alde egiten da, 2014-2020 aldirako Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren Euskadiko Programa Operatiboaren kudeaketa eraginkor bat garatzeko.

2019an, sektore guztiek erregistratu dituzte nazioartekotze-jarduerak Ogasun eta Ekonomia arloan. Lehentasunezko sektorea **interes sektorialen sustapena izan da (B2)**, ondoren **ezagutza biltzea (B5)**, **herrialde-markaren sustapena (B1)**, eta, neurri txikiagoan, (B3) eta (B4) sektoreak.

24. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Ogasuna eta Ekonomiaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

Ikuspegi horren arabera, eta **interes sektorialen defentsan (B2)**, Pirinioetako Lan Elkarteko (CTP) batzorde exekutiboetan parte hartu zen 2018-2022 aldirako Pirinioetako Estrategia sortzeko, Espainia-Frantzia-Andorra-ren arteko Mugaz Gaindiko Lankidetzaren Programaren (POCTEFA 2014-2020) jarraipen-batzordeetan, bai eta EGEF (Programazio Batzordea) laguntzak emateko proiektuen eta erabakien deialdietan ere. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko EGEF 2021-2027 Programa Operatiboaren programazioa eta plangintza estrategikoa lantzen hasi gara, Estatuko eta Europako Batzordeko ordezkariekin.

Ezagutza biltzeari (B5) dagokionez, garrantzitsuak dira Eustat-en ekarpenak nazioarteko kongresuetan parte hartuz, edo Ekonomiaz aldizkaria argitaratuz.


Bestalde, eta **lurralde-markaren proiektioarekin (B1)** lotuta, besteak beste, Euskadiren aurkezpen bat egin zen nazioarteko *rating* agentzia nagusien aurrean (Fitch, Moody's eta S&P), eta Eusko Jaurlaritzak Norvegian, Herbehereetan, Frantzian eta Alemanian aurkeztu zuen "Euskadiko Bonu Iraunkorren" bigarren emisioa.

3.19 Hezkuntza

Gizarte gisa aurrera egiteko konpromisoarekin, Euskadik bere gizabanakoen garapen osoa bermatuko duen bidezko sistema bikain bat sortzen dihardu. Hezkuntzaren arloko jarduerak, beraz, euskal prestakuntza-eredua nazioartekotzea, bai eta ikaskuntzaren eta irakasleen prestakuntza sustatzera bideratutako ekintzen ingurukoak ere.

2019an arlo horretan egindako jarduerak **proiektu europarrari (B4) eta garapen iraunkorrerako erronka globalei (B3) laguntzera** bideratu dira.

25. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Hezkuntzaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

Europako proiektuari laguntzera (B4) bideratutako jarduera gisa, Portugalgo enbaxadarekin harremanak ezartzea azpimarra daiteke; bereziki, Eusko Jaurlaritzak Portuges-ingeles elebitasunerako hezkuntza estrategia ezagutzeko duen interesa adierazi da, eta horretarako herrialdera bisita bat antolatzeke lankidetzan aritu da. Aipatzekoa da, halaber, Standing International Conference of National and Regional Inspectorates of Education (SICI) elkarteak antolatutako ekitaldietan, biltzarretan eta lantaldeetan parte hartu izana.


Erronka globalei laguntzeko (B3) egindako jardueren artean, nabarmendu behar da UNESCOren aurrean, Parisen, euskal inklusibitate hezkuntza-politikak aurkeztea, garapen jasangarriaren helburuen eta Euskadi Basque Country 2030 Agendaren ikuspegitik.

3.20 Lanbide Heziketa

EBCK Lanbide Heziketaren euskal eredia nazioartekotzeari bultzada ematea aurreikusten du, bai eta TKNIKA erreferentzia zentro gisa posizionatzea ere UNESCOren UNEVOC sareko kide onartu dutenez gero.

2019. urtean, jardueraren zati handi bat **Europako proiektuari (B4)** eta **Euskadi Basque Country marka nazioartean zabaltzeari (B1)** laguntzera bideratuta egon zen, baina **garapen iraunkorrerako erronka globalei laguntzeko ekarpenak (B3)** ere esanguratsuak izan zen.

26. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Lanbide Heziketaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

Europako proiektuari lagundu (B4) dioten ekintzen artean, Manuela Geleng, Europako Batzordearen DG Employment, Social Affairs and Inclusion-en barneko Skills-eko zuzendariaren bisita nabarmendu behar da, Euskadiko LHko ekosistema ezagutzeko. Aldi berean, EfVET (European Forum of Technical and Vocational Education and Training) sarearen urteroko konferentzian parte hartu da, EARLALL edo UNESCO-UNEVOC sareetan esku hartze aktiboa mantendu da, eta Erasmus+ proiektu europarretan parte hartzea ere bereizten dira.


Gainera, TKNIKA-tik Txileko, Ipar Amerikako edo Brasilgo ordezkarietzi egindako harreretan euskal aditua hedatu ahal izan da, horrela **EBC marka (B1) eskualde horietan proiektatzen lagundu delarik**. Azkenik, aipatu behar da Donostiako Kurasaalean Lanbide Heziketako Nazioarteko Kongresua egin zela, eta bertan izan zirela Europako Batzordeko, UNESCOko eta Lanaren Nazioarteko Erakundeko ordezkari politikoak, bai eta Espainiako Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministeriokoak, autonomia-erkidegoetako hezkuntza sailletakoak eta Europako hainbat tokitako Lanbide Heziketako irakasleak ere.

3.21 Unibertsitateak eta Ikerkuntza

EBCK euskal unibertsitateen nazioartekotzea sustatzea aurreikusten du euskal unibertsitate sistemari lotutako nazioarteko Bikaintasun Campusak bultzatzeko ekintzen bidez. Era berean, BERK bikaintasuneko oinarritzko ikerketa-zentroen nazioartekotze-prozesua indartuko da, nazioartean erreferentzia-zentro gisa koka daitezen.

2019. urtean, arlo horretako ia ekintza guztiak **interes sektorialak sustatzera eta bultzatzera (B2)** bideratuta egon ziren, non **EBC markaren nazioarteko (B1) eta Europako proiektuari laguntzea (B4)** bektoreak ere garrantzitsuak izan ziren.

27. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Unibertsitateak eta Ikerkuntzaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

Ikuspegi honetatik, euskal ikertzaileak nazioartekotzeko programak bultzatu dira, esate baterako Basque Visiting Fellow programa, Oxfordeko Unibertsitatean ikerketarako egonaldiak finantzatzeko dena, Ikerbasque Research Professor, Research Associate eta Research Fellow programak, doktore ikertzaileen mugikortasun programa (Iker mugikortasuna), doktoretza aurreko egonaldien programak (Egonlabur), edo doktoretza ondorengo hobekuntza programa, Hezkuntzaren esparruan **Euskadiren (B2) interesak sustatzeko** balio izan dutenak.


Aldi berean, berriz ere mugaz gaindiko lankidetzak-jarduerak garrantzia handia izan zuten Euroeskualdearen esparruan, hala nola, Euskampus Bordeaux Eguna, Inteligentzia Teknologikoko Laborategi bat abian jartzea Euskal Unibertsitate Sistemaren eta Bordeleko Unibertsitatearen artean, Euskadi-Nafarroa-Akitania Bio-Osasun V. Topaketen ospakizuna edo Ocean i3 proiektuaren garapena, mugaz gaindiko euskal kostaldean ekonomia urdina garatzeko asmoa zuena. Ekintza hauek guztiak **Europako proiektuari laguntzea (B4)** ahalbidetu zuten. Azkenik, eta Europa mailan ere, aipatzekoa da, Hezkuntza sailaren politika Europako Batzordearen aurrean aurkeztu izana, unibertsitateen berrikuntzaren eragina areagotzeko.

3.22 Osasuna

EBCK euskal osasun-ereduari nazioarteko ikusgarritasuna eman nahi dio, nazioarteko foroetan parte hartuz, euskal profesionalen eta osasun zentroyen eta nazioarteko bikaintasun-zentroyen arteko harremanak sustatuz, eta proiektu, partzuergo eta sareetan kolaboratuz.

2019. urtean, eremu horretako jarduera, **garapen iraunkorrerako erronka globalei erantzuten laguntzera (B3)** eta **Europako proiektuari laguntzera (B4)** bideratu zen, nahiz eta, era berean, **EBC marka proiektatzeko (B1)** egindako esfortzuak ere garrantzitsuak izan zen. Azkenik esan beharra dago (B2) eta (B5) bektoreetan ere jarduerak erregistratu zirela.

28. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Kanpo Harremanen eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

Jarduera eremu honetan bai Eusko Jaurlaritzak zein Euskal Osasun Sistemako erakunde/zentroyek ezagutza trukatu zuten EBCKo lehentasunezko eskualdeekin lankidetzaren bitartez, adibidez: Flandesen eta Euskadiren artean egindako topaketa bioteknologiko baten bidez, Eskoziara egindako bisita baten bidez, "Health Aging Innovation Cluster" erakundea ezagutzeko, edo Onco-Interclustering jardunaldia antolatuz, non Aquitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako eskualdeetako ikerketa kliniko eta enpresarialetako eragile nagusiak onkologiaren inguruan bildu ziren. Ekintza hauek guztiak bai EBC marka nazioartean proiektatzeko (B1) zein Europar proiektuari laguntzeko balio izan dute (B4). Era berean, lan handia egin da Ipar Irlandarekin, Eskoziarekin eta beste nazio eta eskualde batzuekin EIP-AHA sarearen barruko ekintzen eskalatzea indartzeko.

Hala ere, azpimarratu behar da esparru honetako jardueraren zati handi bat nazioarteko programa eta proiektuetan parte hartzera bideratuta egon dela, gehienak Europako testuinguruan, hala nola Gatekeeper, Ithaca, Connect4Children, Young50, Safe-NMedtech edo Exact-2, Validate, mHealth-Hub, TB-Med proiektuak, etab.


Aurten ere, Dusseldorfren, 2019ko teknologia eta produktu medikoen MEDICA nazioarteko azokan parte hartu da.

3.23 Hizkuntza Politika

Hizkuntza Politikaren eremuan helburu nagusia euskara nazioartekotzea da, eta Etxepare Institutua da ekintza guztien aitzindari dabilena Euskadiko kultura sektoreekin elkarlanean.

2019 nazioarteko jarduera, **Euskadi Basque Country marka sustatzera eta bultzatzera (B1)** mugatzen da.

29. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Hizkuntza Politikaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta


lido horretan, bi ekintza nabarmendu behar dira: alde batetik, NPLD (Network to Promote Linguistic Diversity) sarearen barruan izandako jarduera bizia, Eleaniztasunaren Europako Astearen esparruan jarduerak abian jartzeko; eta, bestetik, Akitaniaren, Euskadiren eta Nafarroaren arteko lankidetzak "Hiruko Ituna" lankidetzak itunaren sinadura berriaren bidez berretsi zela.

3.24 Segurtasuna

Segurtasunaren arloko nazioartekotzearen ardatza da alde biko harremanak ezartzea nazioarteko segurtasun agentzia eta erakundeekin, eta nazioarteko foro eta sareetan parte hartzea, informazioa eta jardunbide egokiak erakartzeko.

2019an, arlo horretako jarduerak **interes sektorialak sustatzera (B2)** eta **EBC marka proiektatzera (B1)** bideratu dira; **ezagutza biltzeak (B5)** ere jarduera erregistratu duelarik.

30. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Segurtasunaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta


Ikuspegi horretatik, Finlandiako, Errumaniako eta Txileko hainbat herrialdetako polizia-ordezkaritzen bisitak jaso dira, baita Genevako kantoitik edo Bavaria bezalako eskualdeetatik ere. Bisita horiek baliagarriak izan dira Euskadiko segurtasun-arloko jardunbide egokiak hedatzeko eta, horrela, **EBC marka kanpoko lurralde horietan proiektatzeko (B1)**. **Segurtasunaren arloko interesak defendatzeko (B2)**, nazioarteko ekitaldietan parte hartu da, hala nola MILIPOL- Barne Segurtasunaren Mundu Aretoan), edo Ertzaintzaren aurkezpen instituzionalak egin dira Madrilgo nazioarteko enbaxadetan. **Ezagutza biltzeko (B5)**, nazioarteko bisitak antolatu dira, hala nola, Alemaniako Baden Württemberg Lander-eko Barne Ministeriora eta Poliziari egindakoa.

3.25 Justizia

EBCK ikerketa-proiektuak bultzatzea eta justiziaren arloko topaketa zientifikoak eta profesionalak erraztea aurreikusten du, eta Oñatiko Soziologia Juridikoaren Nazioarteko Institutuari eginkizun garrantzitsua esleitzen dio.

2019an, erregistratutako jarduera nagusi guztiak atzerrian **Euskadi Basque Country marka proiektatzera (B1)** bideratuta egon dira.

31. irudia. Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Justiziaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta


Eremu horretan egindako ekintzen artean, Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzak bisita instituzional bat egin zuen Finlandiara, bere bitartekaritza penalaren eredia aztertzeko; *11th European Forum for Restorative Justice* ekitaldian parte hartu zen, eta Euskadin, Santa Fe probintzia Argentinaretik ordezkaritza bati harremana egin zitzaion, gazte-justiziaren euskal eredutik ikasteko.

3.26 Lana

Lanaren esparruko nazioarteko jardueraren helburua da Euskadi erreferentziazko lurralde bihurtzea laneko segurtasunean, laneko arriskuen prebentzioan eta osasuna sustatzeko ekimenetan.

2019an, lan-arloko jarduera eremua, lehenik eta behin, **Euskadi Basque Country markaren proiektoria (B1)** bideratu da, eta, neurri txikiagoan, **interes sektorialak sustatzera (B2)** eta **ezagutza biltzera (B5)**.

32. irudia: Nazioartekotze ekintzen kopurua, sektoreko, Lanaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

Ekitaldian zehar, Euskadi eta gizarte-ekonomiaren arloan dituen praktika onak ezagutarazteko asmoz, nazioarteko hainbat ordezkaritza jaso dira. Horien artean, nabarmentzekoak dira *CICOPA MDG*-ren Idazkaritza Nagusiaren bisita, industria eta zerbitzu kooperatiben nazioarteko erakundea; Hego Koreako Gobernuaren mendeko *Korean Occupational Safety & Health Agency* erakundearen ordezkariak edo Mongoliako Lan Ministerioaren ordezkaritza bat, Euskadi segurtasunaren **abangoardiako lurralde gisa proiektatzen (B1)** laguntzen dutenak.


Aldi berean, erreferentziazko ekitaldietan parte hartu da, hala nola Lanaren Nazioarteko Erakundearen (OIT) Nazioarteko Biltzarrean, eta Euskadiko gizarte-ekonomiari buruzko kontakizunaren aurkezpenak egin dira. Bertan, Thomas Zacharewicz Europako Batzordeko JRC -ko (*Joint Research Centre*) Unitate Buruari egindakoa nabarmentzen da.

Interes sektorialak sustatzeko ekintza gisa (B2), Euskadiko Nekazaritzako Elikagaien Kooperatiben Federazioari Israelera, lurraldeko asoziazionismo kooperatiboa ezagutzeko, egindako bidaiari emandako laguntza aipatu behar da.

3.27 Zibersegurtasuna

2019an, EBC Estrategiaren esparru dokumentuak jarduera eremu berri bat gehitu du Eusko Jaurlaritzaren nazioarteko jarduera neurtzeko. Zibersegurtasunari buruzko kategoria berri hori Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza arloaren barruan egon zen aurreko urteetan. Basque Cybersecurity Centerra 2017an sortu zenetik izandako hazkundearen ondorioz, 2019an esparru propioa ematea erabaki da. Eremu honen helburua dira Euskadiko aurrerapenak ezagutaraztea eta lurraldea zibersegurtasunaren nazioarteko mapan kokatzea. Hiru izan dira ardatz honetan erregistratutako jarduera nagusiak, eta arreta berezia jarri da **interes sektorialen sustapenean (B2)**, **Euskadi Basque Country markaren proiektzioan (B1)** eta **erronka globalei laguntzea (B3)** bektoreez jarraitua.

33. Irudia: Nazioartekotze ekintzen kopurua, bektoreko, Zibersegurtasunaren eremuan



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

Eremu honetan, aurreko datuak kontuan hartuta, maila globalean proiektzio handia duten nazioarteko ekitaldi eta foroetan parte hartzea gailendu zen. Horiek balio izan dute, lehenik, **interes sektorialak defendatzeko (B2)** eta, ondoren, **Euskadi erreferentziazko lurralde gisa proiektatzeko (B1)**. Hala, nabarmentzekoak dira *First* Konferentziako txostena, Europako Batzordearen Partnership Boardekin egindako bilerak, edo Massachusetts Institute of Technology (MIT) erakundeko Sloan Negozio Eskolan emandako ponentzia, Euskadin Zibersegurtasunari buruz egiten diren ikerketa-jarduerak aurkezteko. Sareei dagokienez, nabarmentzekoa da nazioarteko garrantzitsuenetako batean, ECSO-n (European Cybersecurity Association) parte-hartze aktiboa izatea, hainbat lantalde eta bileratan parte hartu baitda, nazioarteko estandar eta politikei buruz eztabaidatuz eta beraz **garapenerako erronkei lagunduz (B3)**.

4 EREMU GEOGRAFIKOAREN ARABERAKO ANALISIA

EBCn Euskadi nazioartekotzeko eremu geografiko estrategikotzat jotzen diren herrialde eta eskualde multzoa ezartzen da. Lurralde horiek atzerriko euskal interesen parte garrantzitsuena kontzentratzen dute eta lehentasunezko arreta ematen zaie. 2019an zehar, Europa berriro ere gailendu zen **Eusko Jaurlaritzaren eta bere sektore publikoaren nazioartekotze jardueren lehentasunezko eremu geografiko bezala**. Izan ere, nazioartekotzeko jarduera nagusien % 66,82 kontinente honetako herrialdeetara zuzenduta egon dira edo herrialde horietan egin dira. Europaren atzetik, Amerikako kontinentea gailendu zen, nazioartekotzeko jardueren %22,20 bildu baitzuen, eta ondoren Asia (% 9,33), Afrika (% 1,3) eta Ozeania (% 0,35).

33. irudia. 2019an egindako nazioartekotze jardueren ehunekoa, kontinenteen arabera ¹



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

Egindako nazioartekotze ekintzak jaso dituzten herrialdeei dagokienez, EBCK lehenetsitako herrialdeak nabarmentzen dira batez ere: **Frantzia (%10,2), Erresuma Batua (%8,75) eta Alemania (%7,03) Europan; Estatu Batuak (%8,03), Mexiko (%4,53) Txile (%4,48%), eta Argentina (%2,03) Ameriketara; eta Txina (%5,3) Asian**. Beste alde batetik, eta lehentasunezko eskualdeei dagokienez, **Akitania-Iparalde, Eskozia eta Flandes**, guztiak Europako kontinentean, eta Jiangsu, Txinan, jardueren zati handi bat bildu zuten.

¹ Jarduera nagusiak barneratzen dira bakarrik. Kontinente batean espezifikoki zuzendu edo garatu ez diren jarduerak, guztizkoetatik kanpo geratzen dira.

35. irudia. 2019an egindako nazioartekotze jardueren ehunekoa, lehentasunezko eskualdeen arabera³



Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

³ Lehentasunezko Jarduera nagusiak barneratzen dira bakarrik, lehentasunezko eskualdeetan berariaz zuzendu edo garatu ez diren jarduerak alde batera utzita.

4.1 Lehentasunezko Herrialdetako jarduera

Lehentasunezko herrialdetan egindako jarduerak batez ere **Frantziara, Erresuma Batua, Alemania eta Iparraldeko Herrialdetara** ardaztu dira Europan; **Estatu Batuetara, Mexikora, Kolonbia eta Txilera, Ameriketara, eta Txinara, Asian**; nahiz eta EBCK zehaztutako herrialde lehenetsi ia guztietan egin diren jarduerak.

Frantzian, garatutako jardueraren zati handi batek balio izan du Akitania Berria – Euskadi – Nafarroa euro eskualdearen barruan mugaz gaindiko eta eskualde arteko kohesioa indartzeko. Lurraldearen lankidetzeta eta egituraketa areagotzeko asmoz, Euro eskualdearen Batzar Nagusiren barnean lanean jarraitu da hainbat proiektu abian jarritz, hala nola Inteligentzia Teknologikoko Laborategi berria edo Interreg Poctefa programaren barnean proiektu desberdinak garatuz. Euro eskualdetik kanpo Euskadiren eta haren eragileen irudia bultzatu da ekitaldi sektorialetan, hala nola ILTM (Turismoa), SIRHA (Nekazaritza, Arrantza eta Arrantza) edo Nautic Paris (Azpiegiturak eta Garraioak). Bestalde, harreman diplomatikoak bultzatu dira herrialdearekin, bai politikaren arloan, Ajuria Enean (Kanpo Harremanak) Frantziako enbaxadorearen harrerarekin, bai kulturaren arloan, Euskal Zinemaren leihoen bidez, Different 12! Paris bezalako jaialdietan.

Erresuma Batuan, ahaleginak Euskadi Basque Country marka sustatzera bideratu dira gehienbat, London Wine Fair, The International Food & Drink Event (Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura) edo WTM (Turismo) bezalako ekitaldietan, ekitaldi kulturalen bidez, hala nola London Spanish Film Festival-ean (Kultura) euskal filmak proiektatuz, BIND 4.0 ekimenaren aurkezpenaz (Erresuma Batuko hainbat hiritan) edota Lehendakariak Erresuma Batuko enbaxadore jaunarekin izandako bileran.

Alemanian, Euskadi Basque Country herrialde-marka sustatu da eta euskal sektore anitzeko interesei lagundu zaie hainbat azoka eta kongresutan parte hartuz, hala nola Prowein eta Anuga (Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura), ITB, Reisen eta Routes (Turismoa), Medica (Osasuna), International Conference on Climate Change (Ingurumena), edo EMO edo Hannover Messe (Enpresa-nazioartekotzea) azoketan. Halaber, alde biko harremanak izan dira, hala nola Baden Württembergeko Barne Ministerioa bisitatu zen (Segurtasuna) eta Lehendakaria Alemaniako enbaxadorearekin elkartzeta nabarmentzen direlarik; horrez gain erreferentziazko euskal ekimenak ere sustatu dira, hala nola Euskadiko Bonu Iraunkorraren (Ogasuna eta Ekonomia) bigarren jaulkipena.

Eskandinaviar herrialdeetan, Danimarka, Finlandia eta Suedian garatutako jarduera nabarmendu zen. Herrialde horiekin harremanak estutzeko ekintza nagusi gisa, beharrezkoa da azpimarratzea Kanpo Harremanetarako Idazkari Nagusiak, Europako Gaietarako zuzendariak eta Kanpo Harremanetarako Zuzendariak, Iparraldeko Ministroen Kontseiluarekin (Eskandinaviako bost herrialderen lankidetzarako parlamentuen arteko erakundea ; Islandia, Danimarka, Suedia, Finlandia eta Norvegia) arteko lankidetzarako parlamentu arteko erakundea) Kopenhagen egindako bilera, lurraldeen arteko lankidetzeta-interesak partekatzeko. Bio ekonomiaren arloa herrialde eskandinaviarrekin mantendutako jardueraren ardatz garrantzitsua izan da, herrialde hauek arlo

horretako abangoardian baitaude. Aipatzekoak dira EFI sarearen (European Forest Intitute) gobernu-batzordetan Suedian eta Danimarkan egindako bileretan izandako parte-hartzeak edo inbertsioak harrapatzeko (Nazioartekotze Zuzendaritza) erreferentziazko euskal enpresak Finlandiara egindako bisitak, hala nola Spinnova eta beste enpresa batzuk.

Amerikako kontinentean, jarduera Estatu Batuetan, Mexikon, Txilen, Kolonbian eta Argentinan zentratu zen nagusiki, Eusko Jaurlaritzak ordezkaritza propioa duten herrialdetan alegia. Horrez gain, lehentasunezko beste herrialde batzuetan ere egin ziren jarduerak, EBC-ek aurreikusten duen bezala.

Ameriketako Estatu Batuei dagokionez, Lehendakariak Idahoko gobernadorearekin edo New Yorkeko alkateordearekin izandako topaketa instituzionalak izan ziren nabarmen, baina bereziki garrantzitsua izan zen interes ekonomiko eta komertzialen sustapena misio komertzialen bidez, hala nola, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako Sailburuak Kaliforniara eta Washington D.C-ra egindako bidaiak edo Industria sailburuordeak, Euskal Energia Erakundeak eta Energiaren Euskal Klusterrak Massachusetts eta Washingtonera egindako misioak. Bidai hauetako agendaren parte bezala sektore pribatuarekin, akademiarekin, erakunde aldeaniztunekin, hala nola Munduko Bankuarekin eta AEBetako Gobernuarekin, bilerak izan ziren. Era berean, eta nazioartekotzeko jardueraren funtsezko ekintza gisa, mundu mailan erreferenteak diren ekitaldietan (Climate Week, World Trade Week NYC, etab.) parte hartu izana nabarmendu behar da, baita AEBetako unibertsitateetan euskara eta euskal kulturaren katedrak mantendu izana ere.

Mexikon, garatutako jarduerak batez ere harreman diplomatikoak estutzera eta euskal interes sektorial eta ekonomikoak sustatzera bideratu dira. Maila goreneko erakunde-loturak garatu dira, eta, horretarako, Kanpo Harremanetarako idazkaritza garrantzi handiko organoekin elkartu zen, hala nola CONAGO-rekin (Gobernadoreen Konferentzia Nazionala), Senatuko Nazioarteko Gaietarako Batzordearekin edo Errepublikako Lehendakariaren 2030 Kontseiluarekin, lankidetzaukerak identifikatzeko. Eskualde-mailan, Nuevo León (Industria 4.0), San Luis de Potosí edo Guanajuato (Automobilgintza), Mexiko Hiria (Kooperatibismoa) estatuarekin harremanak mantendu ziren. Azkenik Querétaro eskualde estrategikoan hainbat ekitalditan parte hartu da, eta horietan lanbide-heziketan eta 4.0 industrian euskal trebetasun eta expertisea hedatu da.

Txileri dagokionez, gobernuen arteko zenbait lankidetzak-akordioaren gauzatzea nabarmendu zen: batetik, KHIN eta Txileko Eskualde Garapeneko Idazkariordetzaren arteko lankidetzak-hitzarmena, eskualde mailako deszentralizazio eta finantzaketa publikoaren arloan; eta, bestetik, Txileko Etxebizitza eta Hirigintza Ministerioaren eta Ingurumen eta Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren arteko Mou akordioa, gizarte-babesean eta hiriguneeen birsorkuntzan oinarritua. Gainera, etengabe egin da lan Irekiaren eta Txileko Presidentetzaren Idazkaritza Nagusiaren arteko lankidetzak-hitzarmen bat sinatzeko. Gobernu Irekiaren eta Gardentasunaren arloko akordio hau ezin izan zen gauzatu Andetako herrialdeak sufritutako ministerio-aldaketen ondorioz. Kontuan hartu behar da 2019ko urriko gizarte-etzandak eta horren ondorioz sortutako gizarte-protestek izan zuten eragina. Matxinaden eta gizarte-mobilizazioen ondorioz, herrialdea gelditu egin zen, eta, ondorioz, urtean zehar landutako ekintzak burutu gabe lotu ziren urtearen bigarren zatian zehar. Besteak beste, gobernu irekiaren arloko akordioa geldiaraztea, edo COP 25 Txile bertan behera uztea. Bertan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburuordeak eta IHOBeko adituek parte hartzea espero zen.

Kolonbian, lehendakariak Kolonbiako enbaxadorearekin eta Ernesto Samper presidente ohiarekin izandako topaketa instituzionalak nabarmendu ziren, eta, bereziki, Kanpo Harremanetarako zuzendariaren misioa. Azken horrek garatutako agenda instituzionalaren barnean Nekazaritza Ministerioarekin, Emakumeen Ekitaterako Lehendakaritza Sailarekin edo Findeter klusterrarekin bilerak eta lan-saioak gauzatu ziren. Era berean, Txileko, Peruko eta Kolonbiako Euskadiko ordezkariak Caldas Departamentuak Euskadira egindako bisita itzuli da. Bisita horretan, hainbat saiotan parte hartu zen, euskal ezarpenetarako aukerak bilatzeko.

Argentinan, Euskal Etxeen sare zabalaren laguntzarekin kultura arloan egindako jarduera haundia nabarmendu zen. Horrela, hainbat jaialditan parte hartu da, hala nola Euskal Aste Nazionalan edo *Buenos Aires Celebra el País Vasco* jaialdian, Buenos Aireko Liburu Azokan eta Fit Latinoamerikako Turismoaren Nazioarteko Azoketan ere standak antolatu dira eta “*Dantza*” bezalako filmak zabaldu dira herrialdeko hainbat hiritan.

Asiako kontinentean, EBC-k Txina, Japonia eta Indiako herrialdetan jartzen du begirada, nazioarteko esfortzuak lehentasunez kontzentratzeko.

Txinaren kasuan, Jiagnsu lehentasunezko eskualdearekin elkar ulertzeko memorandumaren berrikuntza nabarmentzen da, bere gobernadoreak Euskadira egindako bisitaren harira. Dokumentu zaharrear lankidetzaz-esparru berriak sartu ziren, hala nola lanbide-heziketa, elikagaien sektorea eta osasuna. Hala ere, ahalegin handiena enpresa-nazioartekotzearen arloko interes sektorialen sustapenerako ekintzetan jarri zen, Wind Power China, China Internacional Import Expo, Rail+Metro China edo Auto Expo Shanghai bezalako ekitaldietan parte hartzearen bidez.

Japonian, Mie eta Fukushimako gobernadoreek Euskadira egindako bisitak nabarmendu behar dira; horiekin, elkar ulertzeko memorandum bana sinatu zen, lehenengoarekin kultura-arloan eta bigarrenarekin energia-arloan. Herrialde honetako Ordezkarien Ganberako diputatuen ordezkariak baten bisita ere jaso zen. Bestalde, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak Japoniako herrialdera egindako prospekzio-bidaian, bilerak egin ziren *Japan Exterior Trade Organization* edo *National Tourism Organization* bezalako erakundeekin, Euskadi sustatzeko ekitaldiak antolatuzko aukerak aztertuzko. Bestalde, Europako Caprice proiektuaren barruan, euskal elikagaiak sustatu ahal izan ziren *showcooking*, *showroom* eta bestelako ekitaldi desberdinen bidez.

Indian, enpresa-nazioartekotzearen arloko jarduerak nabarmendu ziren, Euskadiko sektore-interesak sustatzeko azoketara joanda: Smart City Nueva Delhi, Blench India, Smart Factory edo IFAT azoketara besteak beste.

Azkenik, **Hegoafrikaren** kasuan, lehentasunezko herrialde afrikar bakarra izanik, Kwazulu Natalen ordezkariak bat jaso zen, honen xehetasunak hurrengo atalean emango direlarik.

4.2 Lehentasunezko eskualdetako jarduerak

Lehentasunezko eskualdeen kasuan, Europako kontinentean egindako jarduera azpimarratu behar da, batez ere Akitania Berria-Iparralden (Frantzia), Eskozian eta Galesen (Erresuma Batua), Flandrian (Belgika) eta Bavarian (Alemania).

Akitania Berria-Iparralderen kasuan, 2019an Euskadik tinko eutsi dio mugaz gaindiko lankidetzari eta kohesiorako konpromisoari, bai Akitania-Euskadi-Nafarroa LLET-aren bidez, bai Pirinioetako Lan Elkartearen bidez (Kanpo Harremanak), eta, bereziki, Euskadiren eta Iparraldeko Mankomunitatearen arteko Memorandumaren sinaduraz. Ikuspegi sektorial batetatik, mugaz gaindiko proiektuak bultzatu dira, arreta berezia jarritz Interreg POCTEFA programaren bidez sustatutako proiektuei; era berean unibertsitate- eta ikerketa-arloan lanean jarraitu da Euskampus ekimenaren barruko baterako ekintzen bidez. Kirol arloan, nabarmentzekoa da lehen Euro Basque Rugby Challenge txapelketa, mugaren bi aldeetako talde onenak bildu zituen.

Eskozia lehentasunezko eskualdetara bideratutako nazioarteko esfortzuen zati garrantzitsu baten ardatz izan da. Kultura sustatzeko #ScotlandGoesBasque ekimenaren antolakuntza bereizten da. Ekimen horrek Eskoziako ehun kultur ekitalditan parte hartzeko aukera eman zien 85 euskal artista baino gehiagori, hala nola Edinburgh International Film Festival-ean edo Edinburgh Book Festival-ean bezalako plazatan. Hau guztia antolatzeko helburuarekin, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eta Kanpo Harremanetako Idazkaritzak Eskoziako Kultura Ministerioarekin oso gertu egin dute lan. Bestalde, nabarmendu behar da elkar ulertzeko memorandum bat sinatu dela enpleguaren jarduera esparruan Eskoziako gobernuarekin, jardunbide egokien trukea eta elkarrekiko ikaskuntza sustatzeko.

Flandesen kasuan, nabarmentzekoak dira gobernuetako ordezkarien artean kultura eta sormen-industrien (Kultura / Enpresen Nazioartekotzea) eta bioteknologia-industrien (Osasuna) arloko topaketa sektorialak; Enplegu Sailaren misioa Belgikara, Flandesko Ekonomia eta Gizarte Batzordeko ordezkariarekin eta Enplegu ministroarekin biltzeko, edo Euskadiko Ordezkaritzan bi gobernuetako Europako gaien zuzendaritzen artean egindako bilerak, aurreko ekitaldian sinatutako asmoen adierazpenaren jarraipena egiteko.

Galesi dagokionez, 2019an Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak eta Europako Gaietarako zuzendariak bisita instituzionala egin zuten Cardiffera, 2018ko uztailan bi gobernuen artean sinatutako elkar ulertzeko memorandumaren gauzatzea eta garapena berrikusteko. Agendan, Nazioarteko Harremanetarako eta Galesko Hizkuntzako ministroarekin, Lehen Ministroaren Kabineteko zuzendariarekin eta Konstituzio Gaietarako eta Gobernuen arteko Harremanetarako zuzendariordearekin bilerak egin ziren. Era berean, Galesko Asanblea Nazionaleko Kultura, Hizkuntza Galesa eta Komunikazio Batzordeko ordezkariak batek Euskadi bisitatu zuen.

Bavarian, erakundearen arteko loturak estutzen jarraitu da, Bavariako poliziaren ordezkariak baten bisitarekin (Bere Presidente buru zela) edo BTI Alemaniako zuzendariak Invest In Bavariarekin izandako bilerarekin.

Amerikan, Quebec, Queretaro eta Minnesota eskualdeetan jarduerak egin ziren. **Quebecen**, nabarmentzekoak dira Quebeceko lankidetzaren tekniko proiektuetarako laguntzen deialdiaren ebazpena, 8 erakunderi esleitutakoa, eta Learning Tourraren V. edizioa, Quebeceko enpresamunduko pertsona ospetsuekin, non Euskadiko gauzarik nabarmenenak erakutsi zitzaizkien. **Querétarori** dagokionez, Basque Industry 4.0 estrategia aurkezten zen hainbat ekitalditan parte hartzen zen, eta " *Capacitación sin Fronteras* " ekitaldiaren antolaketan lagundu zen, Mondragon Unibertsitatearekin batera, lanbide-heziketaren inguruan. Aipatzekoa da, halaber, **Minnesotari** dagokionez, estatuko amerikarreko zenbait ikastetxetako 26 ikaslek eta 2 irakaslek Tknikara eta EAEko beste LHko ikastetxe batzuetara joateko aukera izan zutela.

Azkenik, Asiaren kasuan, **Jiangsu**-rekin, harreman instituzionalak areagotu egin dira, bere gobernadorearen bisitaren bidez, baina, batez ere, 2012an bi gobernuen artean sinatutako elkar ulertzeko memorandumaren berrikuntzarekin.

Afrikako kontinentearen kasuan, Euskadin "Trade and Investment **Kwazulu Natal**" agentziako bi ordezkari hartu ziren, SPRIren eta BTIren homologoa, Euskadi bisitatu zutenak eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarekin, Arabako Merkataritza Ganberarekin, Automobilgintzako Klusterrarekin, Zamudioko Parke Teknologikoarekin eta Innobasquerekin bilerak izan zituztenak, besteak beste. Bisita honen helburua etorkizuneko aldeko lankidetzaren ardatz garrantzitsuenak zehaztea izan zen.

5 JARDUEREN MONITORIZAZIOA

EBCK egindako nazioartekotze jarduerak hierarkizatzen dituen eta jardueren betetze maila global neurtzen duen jardueren Monitorizazio Sistema bat ezartzen du.

2019an Eusko Jaurlaritzak eta bere sektore publikoak guztira 1.403 nazioartekotze jarduera egin zituen, eta horietatik 879 jarduera nagusi zenbatu dira guztira monitorizazio sistemaren barruan.

6. Taula. Nazioarteko jardueraren monitorizazio sistema, egindako jarduerak “nagusietan” eta “lagungarri edo bigarren mailakoetan” zatitzen dituen

TIPOLOGIA	AZPITIPOLOGIA	DESKRIPZIOA	GUZTIRA
NAZIOARTEKO PROIEKTU ETA SAREETAN LANKIDE ETA PARTAIDE IZATEA	JARDUERA NAGUSIA	Bultzada eta benetako partaidetza, Euskadiren protagonismoarekin, nazioarteko proiektu eta sareetan.	179
	JARDUERA LAGUNGARRIA EDO BIGARREN MAILAKOA	Nazioarteko proiektu eta sareetan elkarlan puntuala egitea edo gonbidatu moduan parte hartzea, rol protagonistarik gabe, edo sare eta proiektuekin erlazionatutako ekitaldietan edo informazio saioetan partaidetza prospektiboa izatea.	125
PARTAIDETZA AKTIBOA NAZIOARTEKO EKITALDI, ARGITALPEN ETA EZTABAIDAGUNEETAN	JARDUERA NAGUSIA	Nazioarteko ekitaldi, ospakizun, eztabaidagune eta argitalpenak antolatzea edo horietan parte hartzea erakustokiarekin, hitzaldiarekin edo argitalpenarekin.	195
	JARDUERA LAGUNGARRIA EDO BIGARREN MAILAKOA	Ekitaldietan parte hartzeagatik bilerak eta lan saioak egitea, eta euskal presentzia duten baina Eusko Jaurlaritzak eta bere sektore publikoak antolatu ez dituen ekitaldietara joatea	138
EKITALDIETARA/KONFERENTZETARA PROSPEKZIOZ BERTARATzea ETA/EDO ALDE ANITZEKO BILERETAN PARTE HARTzea	JARDUERA NAGUSIA	Etorkizunera begirako ikuspegiarekin ekitaldietara/konferentzietara joatea eta/edo alde anitzeko sareen bileretan parte hartzea.	195
	JARDUERA LAGUNGARRIA EDO BIGARREN MAILAKOA	Unean uneko alde biko bileretan, etorkizuneko ekintzak prestatzeko bileretan eta ekitaldi eta hitzaldiekin lotutako bileretan parte hartzea, bai eta prestakuntza-ikastaroetara joatea ere.	108
ATZERRIRAKO BIDAIAK ANTOLATzea	JARDUERA NAGUSIA	Atzerrirako ordezkariak eta misio zuzenak antolatzea.	93
	JARDUERA LAGUNGARRIA EDO BIGARREN MAILAKOA	BTIren kanpo sareak edo ordezkariak eta misio zuzenekin erlazionatutako Eusko Jaurlaritzaren kanpo ordezkariak izandako bilera puntualak.	35
ATZERRIKO ORDEZKARITZEN HARRERAK ETA/EDO BILERAK EUSKADIN	JARDUERA NAGUSIA	Euskadin atzerriko ordezkariak harrera egitea.	133
	JARDUERA LAGUNGARRIA EDO BIGARREN MAILAKOA	BTIren atzerriko sarean edo Eusko Jaurlaritzaren atzerriko ordezkarietan erakundeekin bilerak egitea.	45
FINANTZAKETA ETA DIRU-LAGUNTZA PROGRAMEN BULTZADA NAZIOARTEKOTZEAREN ESPARRUAN	JARDUERA NAGUSIA	Nazioartekotze ekosistemako eragileei begira finantzaketa eta diru-laguntza programak martxan jartzea.	84
	JARDUERA LAGUNGARRIA EDO BIGARREN MAILAKOA	Europako finantzaketa proiektuetarako hautagaizak prestatzeko edo informatzeko ekintzak, eta SPRIren atzerri sareko euskal enpresen zerbitzu zorroarekin zerikusia duten jarduerak.	73
JARDUERA NAGUSIAK GUZTIRA			879
GAINERAKO JARDUERAK			524
NAZIOARTEKOTZEKO JARDUERAK GUZTIRA			1403

Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

2019an erregistratutako jarduera nagusien azterketatik ondorioztatzen dugu gauzatutako 879 jarduerak % 46ko ekarpena egin dietela 2018-20 hiru urteko aurreikusitako helburuei, eta, guztira lorpen-maila % 84,18ra iritsi dela.

7. Taula. Nazioartekotze jardueren betetze-ehunekoak, 2020ko EBCn ezarritako jomugetan oinarrituta

TIPOLOGIA	DESKRIBAPENA	2018	2019	GUZTIRA	JOMUGA 2020	BETATAKO %
NAZIOARTEKO PROIEKTU ETA SAREEKIKO ELKARLANA ETA PARTAIDETZA	<i>Alde biko edo alde anitzeko nazioarteko proiektuen barruan Euskadiren protagonismoari eragiten dioten ekintzak edo nazioarteko sareen barruko ekintzak</i>	161	179	340	400	% 85,00
PARTAIDETZA AKTIBOA NAZIOARTEKO EKITALDI, ARGITALPEN ETA EZTABAIDAGUNEETAN	<i>Ekitaldi, argitalpen edo eztabaidaguneetan nazioarteko garrantzia duten plataformetan Euskadik protagonismoz (antolaketa, standa edo hitzaldiak) parte hartzea</i>	168	195	363	350	% 103,17
EKITALDIETARA/KONFERE NTZIETARA PROSPEKZIOZ BERTARATZEA ETA/EDO ALDE ANITZEKO BILERETAN PARTE HARTZEA	<i>Ekitaldi, bilera eta eztabaidaguneetan prospekziozko ikuspegiarekin eta rol protagonistarik gabe parte hartzea</i>	219	195	414	450	% 92,00
ATZERRIRAKO BIDAIK ANTOLATZEA	<i>Euskadiren atzerrirako proiektzioan eragiten duten nazioarteko misio, ordezkaritza eta bidaiak antolatzea</i>	60	93	153	200	% 76,50
EUSKADIN DAUDEN ATZERRIKO ORDEZKARITZEN TOPAKETA EDO/ETA HARRERAK	<i>Euskadi bisitatzen duten nazioarteko ordezkariari abegi, harrera eta arreta egitea</i>	90	133	223	250	% 89,20
FINANTZAKETA ETA DIRU LAGUNTZA PROGRAMEN BULTZADA NAZIOARTEKOTZEAREN ESPARRUAN	<i>Euskadiko nazioartekotze ekosistemako eragileentzako finantzaketa eta diru-laguntza programak martxan jartzea</i>	72	84	156	250	% 62,40
GUZTIRA		770	879	1649	1900	% 84,18⁴

Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

⁴ Lorpen-maila % 100 baino handiagoa izan den kasuan, azken zifra hori hartu da erreferentziazat.

6 JARDUEREN ERAGINA

Estrategiaren pisuari eusten dioten eremu tematikoetako inpaktua neurtzeko adierazleak dauzkan **Aginte Taula** bat du EBCK: **Kanpo Harremanak, Enpresak Nazioartekotzea, Kultura, Turismoa, Garapenerako Lankidetzeta eta Kirola**. Eremu horietan oinarrituta, Euskadiren nazioartekotzearen egoeraren eta eboluzioaren argazki bat emango duten neurketak egingo dituzten adierazle batzuk hartzen dira.

Analisi hau ondorengo ekitaldietan adierazleen bilakaera aztertuz aberastuko bada ere, ondoren 2018 eta 2019ko datuak aurkezten dira:

8. Taula. 2018 eta 2019 urtetarako 2020ko EBCren adierazleen taula

JARDUERA EREMUAK	ADIERZLEA	NEURRI UNITATEA	2018KO DATUAK	2019KO DATUAK	GUZTIRA	ITURRIA
ACCIÓN EXTERIOR	▪ Eusko Jaurilaritzak izenpetutako nazioarteko akordioak	Kopurua	5	9	471 ⁵	Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia
	▪ Nazioarteko sareak Eusko Jaurilaritzaren partaidetzarekin	Kop.	7	32	122 ⁶	Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia
ENPRESAK NAZIOARTEKOTZEA	▪ Ondasunak esportatzeko EAEn joera	%	33,7%	32,0%	33,44%	Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila
	▪ Enpresa esportatzaile erregularrak > (1K€) ⁷	Kop.	2.994	3.095	-	Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila
KLTURA	▪ Euskarako eta euskal kulturako katedrak eta irakurle postuak munduan ⁸	Kop.	43	44	-	Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
	▪ Nazioarteko zenbat kultura ekitalditan hartzen den parte (lanbideko azokak)	Kop.	29	69	98	Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
TURISMOA	▪ Turismo gastua guztira (Turismo hartzailea) BPG-arekiko ⁹	%	6,1%	-	-	Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila
	▪ Euskadira heltzen diren turistak ¹⁰	Kop.	3.673.431	3.184.904	6.858.335	Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila
GARAPENERAKO LANKIDETZA	▪ Garapenerako lankidetzarako laguntza/erabilitako aurrekontua ¹¹	%	0,43%	0,39%	0,41%	Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia
KIROLA	▪ Olinpiadetan parte hartzen duten euskal kirolariak ¹²	Kop.	5	46	122 ¹³	Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Iturria: Geuk egina Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren datuetatik abiatuta

⁵ Eusko Jaurilaritzak azken bost legegintzaldietan sinatutako akordioen zenbaketa historikoa 471 akordiora iritsi da 56 herrialdetan. Akordio horiek munduko BPG-ren % 84,58 osatzen duten lurraldeak hartzen dituzte..

⁶ Sareen zenbaketa, guztira, 122-koa da; horietatik 79 Europarrak dira eta 43 mundu osokoak

⁷ Nahiz eta EBCKn "enpresa esportatzaile erregularrak >50k €" ezarri, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak enpresa esportatzaile erregularren datua > 1k € erabiltzen du, eta horrela sartu da adierazleen koadroan.

⁸ 9 euskal ikasketen katedrak eta euskal irakurleak dituzten munduko 35 unibertsitate.

⁹ Datua ez dago eskuragarri 2019an. Turismo Sailaren datuen arabera, Eustatek 2021eko urtarrilera arte ez ditu argitaratuko 2019ko Turismoko Kontu Satelitearen datuak

¹⁰ Araututako establezimenduetan ostatu hartutako turisten datua bakarrik kontabilizatzen da. Datua ez da behin betikoa izango 2021eko urtarrilera arte.

¹¹ Nahiz eta BCEk "garapenerako lankidetzarako laguntza/BPG" ezartzen duen, Euskadiko BPG neurtzeko konplexutasuna dela eta, munta hori aldatu egin da gobernuaren aurrekontuagatik: "Garapenerako lankidetzarako laguntza/gauzatutako aurrekontua". 2019ko datua esleitutako eta gauzatu gabeko aurrekontuaren gainean kalkulatu dago, datu hori egiteko prozesuan baitago oraindik.

¹² 2018an, bost euskal kirolarik parte hartu zuten Pyeongchangeko Neguko Jardunaldietan. 2019an, olinpiadarik ez dagoen urtean, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 46 euskal kirolari erregistratu ditu diziplina ezberdinetako munduko txapelketetan..

¹³ 122 euskal atletek parte hartu dute Udako Jardunaldien azken 4 edizioetan.

7 ONDORIO NAGUSIAK

2018. urtean Euskadi Basque Country Estrategia berria aurkeztu zen, 2014an ezarritako Esparru Estrategia eguneratzen zuena eta Eusko Jaurlaritzaren eta haren sektore publikoaren nazioartekotze-jarduera monitorizatzeko sistema bat sartu zuena. Bi urteren ondoren, 2019an, **jarduera orokorra oso positiboa izan dela** esan daiteke, goranzkoa, aurreko ekitaldian garatutako jardueraren ildotik. **Hala, 2019an, EBC 2018-2020 hiru urteko aurreikusitako jardueren betetze-maila % 84,18ko batez bestekoa da.**

Monitorizazio-sistema osatzen duten jarduera-tipologietako bakoitza aztertuz gero, jardueramailla % 62,40tik % 100era bitartekoa izan da bigarren urte honen amaieran 2020. urtearen bukaerarako ezarritako helburuekiko. Jarduera-tipologien artean bereziki nabarmendu ziren: partaidetza aktiboa nazioarteko ekitaldi, argitalpen eta eztabaidaguneetan, 2020rako helburuen %103,71 gauzaturata; ekitaldi eta konferentzietara prospekzioz bertaratzea eta/edo alde anitzeko bileretan parte hartzea, hiru urtekoaren helburua lortzetik gertu, % 92ko exekuzioarekin; Euskadin dauden atzerriko ordezkariak topaketak eta/edo harrerak, % 89,2ko betetze mailarekin; eta, azkenik, nazioarteko proiektu eta sareetan lankide eta partaide izatea, %85-eko burutzearekin. Garapen-maila txikiagoan daude atzerriko bidaiak antolatzea %76,5 , eta nazioartekotzearen esparruan finantzaketa eta diru laguntza programen bultzada; izan ere, guztizkoaren % 62,4-a bakarrik osatuta izanda, tipologia horri arreta berezia eskaini beharko zaio 2020ko ekitaldian. Atal honen azken puntu gisa, **ikusi behar da kasu gehienetan 2018an egindako jardueraren antzeko joerari eutsi zaiola, ia beti goranzko joera txiki batekin.** Jarraian, laburbilduta, tipologia bakoitzaren barruan jarduera garrantzitsuenetako batzuk jasotzen dira, erregistratutako jarduera handienetik txikienera:

2. tipologia (Partaidetza aktiboa nazioarteko ekitaldi, argitalpen eta eztabaidaguneetan), honako eremu hauek nabarmentzen dira: Kanpo Harremanak, adibidez, New Yorkeko High World Trade Week erakustokian stand batekin parte hartuz, Euskadi Basque Country 2030 Agenda ELGA-ren “Territorial Approach to SDG” jardunaldian eta Eskualdeen Batzordean aurkeztuz , edota EBC 2030 Agenda GOLD txostenaren Europako atalean kokatuz; Enpresen Nazioartekotzea, Euskadiren interesentzat garrantzi handiena duten azoka industrialetan stand-arekin parte hartuz, eta, hala nola Hannover Messe azokan edo Brnoko Makina Erremintaren Azokan, edo Europako hainbat hiritan BIND 4.0 programa aurkeztuz; eta Kulturaren eremua, esaterako Bruselako Liburu eta Komik eta beste azoketan euskal stand-ak jarriz, New York City Basque Film Festival bezalako euskal zinema-leihoak antolatuz, euskal artista eta konpainiei hainbat topaketa eta azokatan emandako babesa, eta beste hainbat ekintzaren bidez Euskadiren irudi erakargarri bat sustatuz.

3. tipologiaren barruan (Ekitaldi eta konferentzietara prospekzioz bertaratzea eta/edo alde anitzeko bileretan parte hartzea), Enpresak Nazioartekotzea eremua nagusitzen da, eta, bigarren maila batean, Kanpo Harremanak, Lurralde Politika eta Lanbide Heziketa eremuak. Enpresak Nazioartekotzearen esparruan lau kontinenteetako ekitaldi, areto eta azoketara prospekzioz hurbildu da, eta horien artean aipatzekoak dira: FMB Connect, Shanghai Intelligent Factory Exhibition, Mada Expo Italia Azoka, Blech India, Offshore Tech Conference USA, World Business Forum Milano, Tech Day, bezalako ekitaldiak. Alde anitzeko bileretan parte hartzeari dagokionez, honako hauekin egindakoak aipatu behar dira: Txekiar Errepublikako Industria eta Merkataritza

Ministerioa, The Federation of Indian Chambers of Commerce, Invest in Bavaria eta Warwickshire, Innovation Birmingham, Enterprise Ireland, Innpulsa COLOMBIA, European Enterprise Network, Munduko Bankua, World Manufacturing, besteak beste. Kanpo Harremani dagokionez, Europako Parlamentuak eta Europar Batasuneko beste erakunde batzuek antolatutako hitzaldi eta entzunaldi publikoetan edo ERRIN edo Vanguard Initiative sareetako lantaldeetan egindako lan-bileretan parte hartu izana nabarmendu behar da. Azkenik, tipologia honetan, Lurralde Politikaren eremuak Nairobin, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren esparruan antolatutako ekitaldietan izandako parte-hartzea aipatu behar da.

4. tipologiari dagokionez (Euskadin dauden atzerriko ordezkartzen topaketak eta harrerak), nabarmendu behar da urtetik urtera gehiago direla gure lurraldea ezagutzeko interesa duten eragile eta gobernuak, ezagutza eta jardunbide egokiak biltzeko zein lankidetzak-akordio berriak garatzeko asmoz Euskadi bisitatzen dutenak. Hemen Kanpo Harremanetako eremuak jardueraren zati handi bat monopolizatzen du, nahiz eta egia den Enpresen Nazioartekotze, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza, Lanbide Heziketa edo Osasun arloek ere ekarpen garrantzitsua egiten dutela. Kanpo Harremanetako Idazkaritza Nagusiak kudeatutako atzerriko pertsona ospetsuen harrera eta ordezkartza esanguratsuen artean aipa daitezke Japoniako Fukushima-ko eta Mie-ko gobernadoreen bisitak, Japoniako Ordezkarien Ganberako diputatuen ordezkartza bat, SEAD-eko lehen ministroarena.

1. tipologian (Nazioarteko proketu eta sareetan lankide eta partaide izatea), Kanpo Harremanen eta Enpresak Nazioartekotzeren eremuez gain, beste esparru batzuk ere garrantzitsuak dira, hala nola Osasuna, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura, Kultura eta Ingurumena. Kanpo Harremanen eremuan, garrantzitsuak dira ORU/Fogar eta Vanguard Initiative sareetan parte hartzea edo Energia ozeanikoen makro eskualde atlantikoaren sortzeko proiektuaren lantaldea. Enpresen nazioartekotzeari dagokionez, interesgarria da espezializazio adimenduneko estrategiei buruzko InterregS34Growth proiektuan parte hartzea. Bestalde, Nekazaritza, Arrantza eta Elikaduraren esparruan jarduera handia egiten da EFI edo ERIAFF bezalako sareetan. Kulturaren arloan, Creadis3 eta EUNIC eskualdeen arteko lankidetzak-proiektuak nabarmentzen dira. Azkenik, aipatu behar da euskal sistema soziosanitarioko eragileek parte-hartze handia izan dutela Europako H2020 finantzaketa-proiektuetan, hala nola Safe NMedtech, Exact 2 eta YOUNG50 proiektuetan.

4. tipologiari dagokionez (Atzerrirako bidaien antolatzea), beste behin ere, Kanpo-Harremanen eta Enpresen Nazioartekotzearen esparruak nabarmentzen dira, baina Garapenerako Lankidetzaren eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikaduraren arloen ekarpena ere baloratu behar da. Kanpo Harremanen esparruan nabarmentzekoak dira Lehendakariak garatutako bidaiak, hala nola Vatikanon Share Proposamena aurkezteko, Kanpo Harremanetarako zuzendariak Japoniara egindako prospekzio-bidaia edo KHIN Galesera egindako bisita, herrialdeko ministerioetako goi-ordezkariekin biltzeko. Enpresak Nazioartekotzeari dagokionez, aipatzekoak dira AEBra Nazioartekotzeko Sailburua eta Zuzendariak egindako bidaia instituzionala, energiaren sektoreko klusterrari laguntzeko, BTIk enprekin Berreraikuntza eta Garapenerako Europako Bankura egindako bisita, edo *“Opportunity Tryps”* desberdinen antolaketa amerikar kontinenteko hainbat herrialdetara.

Azkenik, jarduera-tipologiei dagokienez, **6. tipologia dugu (Finantzaketa- eta diru laguntza programen bultzada nazioartekotzearen esparruan),** 2019ko amaieran osatutako jardueren bi

heren baino gutxiagorekin, 2020ko ekitaldian bultzada bat beharko duena. Tipologia horretan nabarmentzekoak dira talentua sustatzeko programak, hala nola BEINT eta Global Training bekak (Enpresak Nazioartekotzea), Garapenerako Lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko bekak edo Kanpo Ekintzaren arloan espezializatzeko bekak, Gazte Itzulera Programa (Enplegua) euskal gazte profesionalak euskadira itzultzeko, edota Iker mugikortasuna, Ikerbasque Basque Research Fellow, Egonlabur programak unibertsitateen eremuan. Era berean, beste laguntza-programa batzuk nabarmendu daitezke, hala nola Euskara Munduan (Kultura) edo euskal kirol-talde eta -diziplina desberdinei laguntzea eta sustatzea nazioarteko ekitaldietan parte har dezaten (Kirola). Enpresen nazioartekotzearen esparruan, Elkartu, Zabaldu, Sakondu, Pilotu, Gauzatu edo Global Lehian programak daude, atzerriko merkataritza eta enpresa-jarduerari laguntzeko. Azkenik, Garapenerako Lankidetzaren arloa nabarmendu nahi dugu; izan ere, Itzulketaren Programaren, lankidetzaren proiektuetarako laguntzen eta laguntza humanitarioko ekintzetarako diru-laguntzen bidez, ekarpen handia egiten zaio tipologia horri.

Jarduera-bektoreei erreparatzen badiegu, 2019an berriro ere nabarmendu dira bigarren bektorerako bideratutako jarduerak (interes sektorialak sustatu eta bultzatzea) guztira 298 jarduerarekin (% 33,9), lehen bektoreaz jarraituta (Euskadi Basque Country marka atzerrian proiektatzea) 267 jarduerarekin (% 30,38), eta ondoren laugarren bektorea (Europako proiektuari laguntzea), 139 jarduerarekin (% 15,1%), hirugarren bektorea (Garapen iraunkorreko erronka globalei erantzuten laguntzea) 116 jarduerarekin (% 13,20) eta, azkenik, bostgarren bektorea (Ezagutza biltzea), 59 jarduerarekin (% 6,71). Bektore bakoitzean ikuspegi txiki bat egiten badugu, jarduera handienetik txikienera nabarmentzen dira:

2. Bektorean (Interes sektorialak sustatu eta bultzatzea) azpimarratzekoak dira, halaber, Enpresak Nazioartekotzeko alorretik egindako ekintzak, BTIren bidez euskal enpresari eta enpresaburuari lagundu baitzaio planeta osoan zehar. Kanpo-harremanen eremuan, nabarmentzekoa da nazioarteko erakunde eta instuzioekiko egindako lan handia, bai Lehendakariaren eta sailburuek egindako bidaiei, zein Euskadin jasotako pertsona ospetsuen bisitei esker. Jarduera handia izan duen beste esparru bat Unibertsitate eta Ikerketarena izan da. Bertan, euskal ikertzaileentzako nazioartekotze-programetarako laguntzak ematen jarraitu da, eta aktibo mantendu dira nazioarteko izen handiko unibertsitateekin (Oxford, esaterako) doktoregaiak trukatzeko loturak. Nabarmentzekoa da, halaber, Euskampus bikaintasun-campusaren esparruko jarduera bizia. Kulturaren esparruan, euskal eragileei lagundu zaie Mipcom eta Mipim bezalako azoka profesionaletan, beste askoren artean. Berdintasunaren arloan, Emakundek NBE Emakumeak erakundeko Europako Eskualdeko zuzendariarekin eta Nazio Batuen Biztanleria Funtseko Europako Eskualdeko zuzendariarekin egindako bilerak nabarmentzen dira, elkarren arteko lankidetzarako bide berriak aztertzeko.

1. Bektorearen barruan (Euskadi Basque Country marka atzerrian proiektatzea), alde batetik, nazioarteko sareen eta foroen bidez garatutako jarduera handia nabarmentzen da, baina baita nazioarteko azoka, hitzaldi eta bestelako ekitaldi ospetsuetan izandako parte-hartzea ere. Azpimarratzekoa da Enpresak Nazioartekotzeko esparrua; izan ere, Euskadiko sektore estrategikoekin aliantzan, hala nola industria-sektorearekin, stand-ak antolatuz parte hartu du Parisko Air Show bezalako azoketan, Hegan klusterrarekin batera, edo beste sektore batzuetako enpresen eta partzuergoen alderantzizko misioak jaso ditu, hala nola Oil & Gas Italiarra. Kultur arloa ere garrantzitsua da bektore horren barruan, eta bertan Etxepare Institutuak euskara eta euskal

kultura sustatzeko egindako lana azpimarratu behar da, euskal zinema zikloen bidez, edo nazioarteko arte komisario/kritikariei euskal testuinguru artistikoa erakusteko helburua izan zuen ZABAL bezalako ekimenen bidez. Kanpo Harremanetatik, berriz, Euskal Diaporaren II. Eguna eta Basque Country Egunaren ospakizunak nabarmendu behar dira. Turismoaren esparrua ere funtsezkoa izan da Euskadiko markaren eta erakargarritasun eta berezitasunen proiektioan, horretarako sektoreko erreferentziatzko ekitaldietan parte hartu du nazioartean, hala nola FIT-Latinoamerikako Nazioarteko Turismo Azokan, Cannesko ILTM- International Luxury Travel Market azokan edo WTM – International Travel Trade Trhow azokan. Azkenik, Nekazaritza, Arrantza eta Elikaduraren esparrua ere aipatu behar da, nazioarteko azoketan edo Basque Culinary World Prize banaketaren bidez euskal nekazaritza eta industriako produktuak eta enpresak sustatzen lan egin baitu.

4. Bektorean (Europako Proiektuari Laguntzea) bereziki garrantzitsua da Kanpo Harremanetako jarduera eremutik garatutako jarduera Euskadik Europako erakundeetan duen ahotsa bultzatzeko, bai Eskualdeetako Lantaldean edo Europako Kontseiluan ECOFIN lantaldearen bidez, baina baita europako eskualde-sareetan modu aktiboan parte hartuz ere. Jarduera hori Euskadin zabaltzeko ere ahalegin handiak egin dira txosten desberdinak argitaratuz edo ekitaldiak eta ikastaroak antolatuz. Beste eremu garrantzitsu bat Lanbide Heziketaren eremua da, alde batetik, Eusko Jaurlaritza gaur egun EARLALL sarearen buru delako, eta, bestetik, Tknika Efvet (European Forum for Vocational Education) sarean oso sartuta dagoelako, Euskadin sareko lantaldeen lehen topaketa antolatuz, non nazioartekotzearen eta industria 4.0ren buru den. Azkenik, bektore horretan, Osasunaren arloa ere nabarmendu behar da. Bertan jardueraren zati handi bat Europako programa eta proiektuetan parte hartzera bideratuta egon da hala nola Gatekeeper, Ithaca, Connect4Children bezalako proiektuetan. Halaber, nabarmentzekoak dira sailburuek Europako Batzordeko goikargudunekin egindako bilerak, hainbat euskal ekimen eta politika aurkezteko eta Euskadiren iritzia Europako erakundeetan kokatzeko.

Basque Country 2030 Agenda izan da, 2019an, **3. Bektorea (Garapen iraunkorreko erronka globalei erantzuten laguntzea)** bultzatu duen eragileetako bat, aliantzak eta lankidetzak garatzea, gaiari buruzko ikastaro, jardunaldi eta ponentziak antolatzeaz gain. Kanpo Harremanen esparruan, garrantzitsua da lehendakariak "Konpromiso Globaletarako Tokiko Ekintza" foroan parte hartzea, Nazio Batuen Goi Mailako Foro Politikoaren barruan, lehendakari bat Nazioen Foro Ofizial batera gonbidatzen duten lehen aldia izanik. Bertara 2030 Agendaren eta GIHen ezarpenean izandako aurrerapenak aurkeztera gonbidatu zuten Eusko Jaurlaritza, eta, bereziki, "Euskadiko bonu jasangarriak" jaulkitzen izandako esperientzia. Garapenerako Lankidetzaren esparruan, 2019an, eta gero eta handiagoak diren larrialdi humanitarioei eta nazioarteko deiei erantzuteko erantzukizunarekin, lehen aldiz egin zaio ekarpena Nazio Batuen Larrialdietako Kasuetako Ekintzarako Funts Zentralari. Halaber, euskal proiektu eta eragileentzako laguntzak bultzatu dira, garapenerako lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko bekak berrargitaratuz edo Nazio Batuen sistemako nazioarteko erakundeetako lankideei laguntzak emanez, besteak beste. Berdintasunaren esparruan, Emakundek aplikatutako politikak eta jardunbide egokiak azaltzen dituzten mintegi, sinposio eta hitzaldietan parte hartu da, adibidez: Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluak (CMRE) antolatutako "#InvolveMen: Redefining masculinities" mintegian Gizonduz programaren aurkezpena; edo Emakundek NBE Emakumeak antolatutako CSW63 ekitaldian parte hartuz lehen aldiz.

5. Bektorea (Ezagutza biltzea) ezinbestekoa da Euskadirentzat abangoardiako beste herrialde eta lurralde batzuetako praktika eta esperientzia berriak antzemateko, eta horrela euskadin aplikatuko diren politikak hobetzeko. Bektore horren eremurik aktiboena Enpresen Nazioartekotzea izan da, nazioarteko mintegi, foro eta ekitaldi askotan parte hartu eta lagundu baitu, jardunbide egokiak ez ezik, herrialde eta merkatu berrietan aukera berriak ere identifikatzeko. Kanpo Harremanetako eremuak, bere aldetik, Euskadiren antzekoak diren lurraldeekin ezagutza-trukea sustatu du, Galiziarekin kasu, bertako diaspora handiarekin egindako ekintzak eta esperientziak ezagutzeko. Era berean, ezagutzak trukatzeko memorandumak sinatu dira, hala nola Galesko Gobernuarekin enpleguaren arloan, eta politikak ikasteko jarduerak bultzatu dira Interreg programa europarraren hainbat proiektuen bidez, hala nola Creadis3 edo S34Growth.

2019an, jarduera-eremu berri bat sartu da, zibersegurtasuna, eta 2018an sartutako lan-eremuari gehitu zaio; beraz, dagoeneko 29 jarduera-eremutan sailkatzen dira Eusko Jaurlaritzaren eta haren sektore publikoaren nazioarteko jarduerak. Jarduera-bolumenaren arabera, eta aurreko ekitaldietako ildoari jarraituz, **Kanpo Ekintzaren (% 24,35), Enpresen Nazioartekotzearen (% 23,21) eta Kulturaren (% 6,26) eremuak nagusitzen dira Eusko Jaurlaritzaren kanpo-ekintzaren lehentasunezko ardatz gisa.** Bigarren maila batean, honako arlo hauek ere nabarmendu dira: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura (% 5,01), Osasuna (% 3,98), Lanbide Heziketa (% 3,75), Garapenerako Lankidetzeta (% 3,19) eta Unibertsitateak eta Ikerketa (% 3,19).

Jarduera eremu geografikoei dagokienez, Europa da Euskadiren nazioartekotze-jarduera gehienak burutzen diren eskualdea ; izan ere, ekintzen % 66,82 biltzen ditu, Amerikatik (% 22,20), Asiatik (% 9,33), Afrikatik (% 1,3) eta Ozeanitik (% 0,35) oso urrun.

Estrategian lehentasunezko hartzen diren herrialdeei dagokienez, jarduera gehien biltzen dituzten herrialdeekin bat datoz: Frantzia (% 10,2), Erresuma Batua (% 8,75) eta Alemania (% 7) Europan; Estatu Batuak (% 8,3), Txile (% 4,8) eta Mexiko (% 4,5) Amerikan; eta Txina (% 5,3) Asian. Zentzu horretan, logikoa da kontinente europarra gailentzea, eta, bereziki, goian azalduetako herrialdeak, horietan biltzen baitira nazioartekotzeko esparru-estrategian ezarritako lehentasunezko eskualdeak ere. **Frantzian,** jardueraren zati handi bat mugakidetzeta areagotzeko eta Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa euroeskualdearen Batzar Nagusia bezalako erakundeak sendotzeko ekimen ugari garatu dira. **Erresuma Batuan,** marka-proiektzioak elikadurarekin zerikusia duten ekitaldi sektorialetan, hala nola London Wine Fair edo The International Food & Drink Event, edo Turismoarekin lotutako WTM bezalako erreferentziako ekitaldetan parte hartu da. Erakundeen arteko harremanei dagokienez, lehendakariak Erresuma Batuko enbaxadorearekin egindako bilera eta eskualdeekin lehenetsiekin (Gales eta Eskozia) egindako jarduerak nabarmendu behar dira. **Alemanian,** Euskadirentzat industria eta merkataritza mailan erreferentzia den herrialdean, sektore anitzeko interes euskaldunak defendatu dira mundu mailako garrantzia duten azoka eta biltzarretan, hala nola Hannover Messe (Makina Erremintak) edo ITB (Turismoa). **AEBetan,** nabarmentzekoak dira Lehendakariak Idahoko gobernadorearekin edo New Yorkeko alkateordearekin izandako topaketa instituzionalak, edo Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak herrialde amerikarrera egindako misio komertzialak, non agenda handiak garatu ziren sektore pribatuko aktoreekin, akademiarekin edo Mundu Bankua bezalako erakunde aldeaniztunekin. **Txilen,** gobernuen arteko zenbait lankidetzeta-akordioaren gauzatzea nabarmendu zen: Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren eta Txileko Eskualde Garapenerako idazkariordearen arteko lankidetzeta-akordioa, eskualde mailako deszentralizazioaren eta

finantzaketa publikoaren arloan; eta Txileko Etxebizitza eta Hirigintza Ministerioaren eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren artean, gizarte-babesean eta nukleo berroneratzean oinarritutako memoranduma. Azkenik, **Mexikon**, CONAGO eta COMEXI foroekin eraikitako harremanak azpimarratu behar dira. Asian, **Txina** nabarmendu zen, non, aurrerago deskribatuko diren Jiangsu eskualde estrategikoarekiko harremanez gain, enpresanazioartekotzearen esparruan sektore-sustapeneko ekintza ugari garatu ziren Wind Power China edo Auto Expo Shanghai bezalako aretoetan parte hartuz adibidez.

Azkenik, **lehentasunezko eskualdeei** dagokienez, bereziki nabarmendu behar dira **Akitania-Iparraldearekin** garatutako mugaz gaindiko lankidetzak; izan ere, ekintza guztien % 34 elkarretaratu zituen eskualde mugakideak. Horrela, Euroeskualdearen esparruan, Euskadik mugaz gaindiko lankidetzaren eta kohesioaren aldeko konpromiso irmoa erakutsi zuen, eta bereziki nabarmentzekoa da Euskadiren eta Iparraldeko Mankomunitatearen arteko Memoranduma, bi eskualdeen arteko harremanak estutzeko eta euskara, turismoa eta garraioa bezalako arloetan lankidetzan aritzeko balioko duena. Europan ere garrantzitsuak izan ziren: **Eskoziak** (% 20) garatutako jarduerak, esate baterako, #ScotlandGoesBasque ekimenaren bidez 85 euskal artista baino gehiagori Eskoziako ehun bat kultur ekitalditan parte hartzeko aukera eman zuena, edota Enpleguaren arlo tematikoko elkar ulertzeko memorandumaren harpidetza Eskoziako gobernuarekin, jardunbide egokien trukea eta elkarrekiko ikaskuntza sustatzeko; **Flandriak** (%10) KSI-en edo bioteknologiaren arloetan gobernuen arteko topaketa sektorialak nagusitu ziren eskualdea; edo **Galesen** (% 8), 2018an bi gobernuak elkar ulertzeko memorandumaren garapena eta gauzatzea berrikusteko hainbat topaketa instituzional antolatuz. Asian, **Jiangsurekiko** (% 10) harremanak nabarmen hazi ziren. Hemen nabarmendu daiteke Jiangsuko gobernadore ordeak euskadi bisitatu zuela bi eskualdeen arteko, eta 2012koa zen lankidetzak-memorandumaren eguneratzea sinatzeko. Azkenik, **Minnesotan** (AEB) lehen aldiz jarduerak erregistratu direla aipatu behar da, 26 ikasle eta irakasle teknika bisitatu zutelarik. Azkenik Afrikar kontinenteari dagokionez, Euskadin, "Trade and Investment **Kwazulu Natal**" (Hegoafrika) agenziako ordezkariak harrera egin zitzaizkien, eta hauek euskal eragile eta erakundeekin biltzeko aukera izan zuten.

2019ko jardueraren azterketak erakusten du urte horretan aurrerapen handia lortu zela 2017an 2020ra ezarri ziren helburuekiko. Nazioarteko panoraman egindako ekintzen kopuruak gorantza egin duela ikusi daiteke eta Estrategiaren bigarren ekitaldiaren amaieran espero zen gauzatze-mailari legokiokeenaren ildotik. Eraitza horien arabera, 2020rako ezarritako helburu guztiak betetzeko itxaropen positiboak izan zitezkeen arren, **argi dago COVID-19-aren ondorioz sortutako egoerak eragina izango duela, eta beraz aldiko helburuen betetzea mugatua ikusiko dela**; izan ere, horrek lehorrean geldiarazi du 2020ko bigarren hiru hilabeteetako nazioarteko jarduerak, eta ezinezkoa da aurreikustea 2020ko ekainean noz izan ahalgo den jarduerak berreaktibatzea. Nolanahi ere, 2019an, txosten honen xede den ekitaldian, beharrezko urratsak ematen jarraitu da Euskadi eragile globalaren posizioa emateko, **"Europaren eraikuntzan espazio berekia duela, Herrialde kohesionatua, erakargarria eta lehiakorra, bere berezitasunagatik, giza garapen iraunkorraren maila handiagatik aitortua, solidarioa, munduari irekia eta kanpoko euskal gizataldearekin estu konektatua"**.